

UMEEN BIBLIA

15833

DR. JAKOB ECKER — KEREXETA

UMEEN BIBLIA

KEREXETA'REN BESTE ZERBAIT

- 1.—ORBELAK (1958). (*Agortuta*).
- 2.—BITARGI (1960). (*Agortuta*).
- 3.—JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA (1960-1961). (*Agortuta*).
- 4.—APOSTOLUEN EGIÑAK (1961). (*Agortuta*).
- 5.—EGUNEROKO MEZA (Missale Romanum). (1963). (*Agortuta*).
- 6.—GOGARTEAK (Aita Basabe-Kerexeta). (1963): 35 peseta.
- 7.—DIDAJE eta APOSTOLUEN SINISKITZA (1965): 20
- 8.—APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK (Alkartasun Barria) (1965): 50 eta 40
- 9.—ALKARTASUN BARRIKO ITZAK ETA GAIK (1965): 10
- 10.—ARGI-BIDE TXIKIA (Zugasti-Kerexeta). (1965): 35
- 11.—JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA (Ebanjelioa guipuzkeraz. Kerexeta-Zugasti). (1965). (*Agortuta*).
- 12.—JESUKRISTOREN BARRI ONA (Lau Ebanjelioak). (1966): 40
- 13.—ITUN BERRIA (Novum Testamentum, osorik, gipuzkeraz. Orixe-Kerexeta-Zugasti). (1967): 100 eta 80
- 14.—SALMUTEGIA (1967): 50
- 15.—SALMUDIA (Kerexeta-Zugasti). (1968): 95
- 16.—UMEEN BIBLIA (1969): 50
- 17.—UMEEN BIBLIA (gipuzkeraz. Kerexeta-Zugasti). (1969): 50

Zuzenbide onetara egin zure eskabideak:

JAIME KEREXETA
ELORRIO (Bizkaia)

Euskal Biblioteka Labayru



1017349

RELIGIÓN / N. 636

1969

Euskeratzaille :
Kerexeta'tar Jaime, abadea, Euskaltzaindikoa.

Alemanez :
Die kleine Bibel.

Argitaratzaille :
Patmos-Verlag, Düsseldorf (Alemania)


Nihil obstat :
Dr. Antonio Zaldúa, *Censor Ecc.*

Imprimatur :
Dr. León M.^a Martínez, *Vic. General.*
Bilbao, 1969, Jorraitak 29.

Depósito Legal : NA. 739-1969.

© *Patmos-Verlag, Düsseldorf 1957*
© *Editorial Verbo Divino, Lizarra-Estella 1969*

Irar-lantegia :
Editorial Verbo Divino, Lizarra-Estella (Nabarra).



ALKARTASUN ZAARRA

1. Jaungoikoak mundua ezerezetik egin eban (Gn 1)

Asieran, Jaungoikoak zeru-lurrak egin ebazan. Baiña, lurra naaste utsa zan. Gaiñekaldetik urez beterik egoan, dana illunetan.

Eta Jaungoikoak auxe esan eban: «Egin bedi *argia!*» Eta argia egin zan. Jaungoikoak argiari izena *egun* ezarri utsal, eta illunari *gau*. Ori, *lenengo* eguna izan zan.

Gero, Jaungoikoak auxe esan eban: «Egin bedi *ortzial*!» Eta alantxe jazo zan. Jaungoikoak ortziari izena *zeru* ezarri eutsan. Ori, *bigarren* eguna izan zan.

Gero, Jaungoikoak auxe esan eban: «Batu bediz leku baten zerupeko urak, eta agertu bedi legorra!» Jaungoikoak legorrari izena *lur* ezarri eutsan, eta ur batuai *itxaso*. Gero, Jaungoikoak auxe esan eban: «Lurrak sortu begiz *bedarrak*, *landarak* eta *zugatzak!*» Eta alantxe jazo zan. Ori, *irugarren* eguna izan zan.

Gero, Jaungoikoak auxe esan eban: «Izan bediz *argiak* zeruan!» Eta Jaungoikoak eguzkia, illargia ta izarrak egin ebazan. Ori, *laugarren* eguna izan zan.

Gero, Jaungoikoak auxe esan eban: «Izan bediz *arrañak* uretan eta *egaztiak* zeruan!» Eta Jaungoikoak guztitariko arrain eta egaztiak egin ebazan. Ori, *bosgarren* eguna izan zan.

Gero, Jaungoikoak auxe esan eban: «Izan bediz legorrean lau ankako *abereak* eta *narrastiak!*» Eta alantxe jazo zan. Gero, Jaungoikoak *gizona* egin eban. Ori, *seigarren* eguna izan zan. Eta Jaungoikoak, berak egin izan eban dana begiratu ta dana guztiz ona zala ikusi eban. *Zazpigarren* egunean, Jaungoikoak atsedena artu, eta *zazpigarren* egun a bedeinkatu ta santutu egin eban.

2. Aingeruak

Jaungoikoak *aingeru* asko be egin ebazan. Guztiak oso onak eta zorionsuak ziran. Baiña, areitariko askok pekatu egin eben. Arroto egin ziran. Jaungoikoak inpernura jaurti ebazan. Onei, *txerrenak* edo *deabruak* deritxe. Pekatutara egiten dauskue bultza. Aingeru onak Jaungoikoagaz dagoz zeruan. Gorputz-arimak zaintzen dauskuez. Geure alde erregutzen dabe ta ona egiteko esaten dauskue.

3. Jaungoikoak lenengo gizona egiten dau (Gn 1-2)

Jaungoikoak auxe esan eban: «Egin daigun *gizona* geure antzeko. Lur guztiaren gainean nagusi izango da.» Eta Jaungoikoak gizonaren gorputza buztiañaz egin eban,

eta aren gainera arnasa isuri ta arimea emon eutsan. Jaungoikoak gizonari izena *Adan* ezarri eutsan.

Jaungoikoak gizonarentzat *paradisua* egin eban. Ortu eder bat zan. Frutu gozoz beteriko zugatzak egozan an. Jaungoikoak Adan'i auxe esan eutsan: «Ortuko zugatz guztietatik jan daikezu, ortu-erdian dagoan zugatzetik izan ezik. Aretatik jan dagizunean, il egingo zara.»

Gero, Jaungoikoak auxe esan eban: «Ez da on gizona bakarrik egotea. Emon daiogun lagun bat.» Eta Jaungoikoak Adan'i logura aundi bat bialdu eutsan. Gero, ari saiets bat kendu ta saietsetik *emakumea* egin eban. Eta Jaungoikoak emakumea Adan'egana eroan eban. Adan'ek bere andreari izena *Eba* ezarri eutsan. Adan eta Eba zintzoak eta santuak izan ziran. Paradisuan zorionsu bizi ziran.

4. Lenengo andra-gizonak pekatu egiten dabe (Gn 3)

Deabruak andra-gizonai ikusi-ezin andia eutsen, zorionsu bizi ziralako. Eta suge baten barruan sartu zan, andra-gizonak galtzeko. Sugeak Eba'ri auxe esan eutsan: «Zegaitik esan dautsue Jaungoikoak ortuko zugatz guztietatik ez jateko?» Eta Eba'k erantzun: «Jaten doguz guk zugatzetako frutuak; baiña, ortu-erdian dagoan zugatzaren fruturik ez dogu jan bear; bestela, il egingo gara.» Eta sugeak Eba'ri: «Bai, zera il!; ez zaree ilgo, ez; aretatik jan dagizuenean, begiak edegi egingo yatzuez eta Jaungoikoa lakoak izango zaree.» Orduan, Eba'k zugatzeko frutua artu ta jan egin eban. Gero, bere senarrari be emon egin eutsan, eta senarrak be jan egin eban.

5. Adan eta Eba, zigortuak (Gn 3)

Lenengo andra-gizonak pekatu egin ebenean, ortuko zugazpeetan gorde ziran. Jaungoikoak Adan'i dei egin eta, «Nun zagoz?», esan eutsan. «Zeure bildur naz, eta gorde egin naz», erantzun eutsan gizonak. Eta Jaungoikoak: «Ez jateko agindu neutsun zugatzetik jan dozu, ala?» Eta Adan'ek: «Emazteak zugatz aretako frutua emon daust, eta jan egin dot.» Orduan, Jaungoikoak Eba'ri, «Zer egin



dozu?», esan eutsan. Eta Eba'k: «Sugeak atzipetu egin nau, eta jan egin dot frutua.»

Orduan, Jaungoikoak *sugeari* auxe esan eutsan: «Ori egin dozun ezker, madarikatua izan zaitetz! Zure ta emakumearen artean arerio-asarrea sortuko dot. Emakumeak zapaldu egingo dautsu burua.»

Gero, Jaungoikoak *Eba'ri* auxe esan eutsan: «Lanak eta nekeak eroango dozuz zure seme-alabakaitik, eta gizonaren menpean egongo zara.»

Adan'i be auxe esan eutsan: «Madarikatua lurra zugaitik! Sasiak eta arantzak emongo dautsuz. Lurretik sortua izan zarean ezker, barriro lurrera biurtu arte, zeure bekokiko izerdiaz jango dozu ogia. Izan be, autsa zara ta auts biurtuko zara.»

Eta Jaungoikoak *Adan* eta *Eba'ri* narruzko soñeokoak egin eutsezan. Eta gero, paradisutik kanpora jaurti ebazan. Paradisu-aurrean Jaungoikoak aingeruak jarri ebazan, ango sarrera zaintzeko.

6. Kain'ek bere anaia il (Gn 4)

Adan eta *Eba'k* seme bi izan ebazan: *Kain* eta *Abel*.

Abel, artzaiña zan; *Kain*, nekazaria. *Abel*, zintzoa zan; *Kain*, gaiztoa.

Bein, biak *Jaunari* oparia eskini eutsen. *Kain'ek* lurreko fruetatik eskini eutsan; *Abel'ek*, bere artal-



deko bildotsik ederrenak. *Jaunak*, *Abel* eta onen oparia ontzat artu ebazan; ez, oster, *Kain* eta onen oparia. Orregaitik, *Kain* asarratu egin zan.

Egun baten, *Kain'ek* *Abel* bere anaiari auxe esan eutsan: «Goazan basora.» Eta basora elduaz batera, *Kain'ek* il egin eban bere anaia.


Orduan, *Jaunak* *Kain'i* auxe esan eutsan: «Nun dago *Abel* zure anaia?» «Ez dakit —erantzun eutsan *Kain'ek*—. Nire anaiaren jagole al-naz, ba, ni?» Eta *Jaungoikoak* *Kain'i*: «Zer egin dozu? Zure anaiaren odolak deadar egiten daust lurretik. Orregaitik, madarikatua izango zara lurrean. Lurra landu dagizunean, ez dautsu fruturik emongo. Iñun be ez dozu bakerik aurkituko.» *Kain'ek* alde egin eban. Iñun be ez eban bakerik aurkitu. Aren ondo-rengoak gaiztoak izan ziran, eta «*munduaren semeak*» izan ziran deituak.

Adan eta *Eba'k* beste seme bat izan eben, *Abel'en*

ordez. Izena *Set* ezarri eutsoen. Aren ondorengoak zintzoak izan ziran, eta «*Jaungoikoaren semeak*» izan ziran deituak.

7. Jaungoikoak lurgaiñera uriola bialtzen dau (Gn 6-9)

Gizonak geroago ta gaiztoagoak biurtu ziran. Jaun-



goikoaren semeakaz naastu ta eurak be gaiztotu egin ziran. Gutxik iraun eben onak izaten. Orduan, Jaungoikoak auxe esan eban: «Gizonak ondatzeko erabagia artu dot.»

Baiña, *Noe* gizon zintzoa zan, eta Jaungoikoak auxe esan eutsan: «Egizu zuretzat kutxa bat; lurgaiñera uriol andi bat bialduko dot, eta ango bizidun guztiak il egingo dira. Zu ta zure etxeokak kutxan sartuko zaree. Abere guztietarik arra ta emea artu egizuz, baita janaria be zuretzat eta abereentzat.» Noe'k, guztia Jaungoikoak agindu eutsanez egin eban.

Gero, Jaunak berrogei egunez eta berrogei gabez lurgaiñera euria bialdu eban. Urak geroago ta geiago igoten asi ziran, mendi-tontorren gaiñetik amabost besora eltzeraiño. Kutxa lurretik gora ur-gaiñean ebillen. Gizon

eta abere guztiak ito egin ziran. Noe ta onegaz kutxan egozanak gelditu ziran bizirik soil-soillik.


Lur-gaiñean, urak eun eta berrogetamar egunez iraun eben. Gero, geldiro-geldiro, urak beeratzen asi ziran. Kutxa, mendi baten gaiñean gelditu zan.

Lurra legortu zanean, Jaungoikoak Noe'ri auxe esan eutsan: «Urten zaitetz kutxatik zure etxeokakaz eta kutxako abere guztiakaz!» Eta Noe'k orixe egin eban. Gero, Noe'k altara bat egin eta Jaungoikoari oparia eskiñi eutsan.

Jaungoikoak oparia atsegiñez artu eban; eta Noe bedeinkatu ta auxe esan eutsan: «Ez da berriro izango lurra galtzeko uriolarik. Lurra lur dan artean, ez da an ereitea ta batzea egundo etengo, ez udan ez neguan. Odeietan zeruko zubiak ekarriko dautsue gogora nire agintzari au.»

8. Gizonak guzurrezko jaungoikoak gurtzen

Uriol-ostean, lurrean gizonak ugaritu egin ziran. Baita gaiztotu be geroago ta geiago. Benetako Jaungoikoaz aztu egin ziran guztiz. Eguzkia, illargia ta izarrak gurtzen asi ziran. Geiago be bai: irudiak egin eta jaungoikotzat gurtzen ebezan. Guzurrezko jaungoiko orreik «*sasi-jainkoak*» dabe izena.



9. Jaungoikoak Abraan'i egindako deia (Gn 12)

Uriola izanda gizaldi batzuk geroago, *Abraan* izeneko gizon zintzo bat bizi zan. Jaungoikoak auxe esan eutsan: «Urten zaitez zure aberritik eta zoaz neuk erakutsiko dautsudan lurraldera. Zure ondorengoak ugaritu ta zu be bedeinkatu egingo zaitut.» Abraan bere aberritik urten eta Kanaan-lurraldera joan zan. Emen, Jauna agertu yakon, eta auxe esan eutsan: «Lurralde au zeure ondorengoai emongo dautset.» Abraan'ek altara bat egin eta Jaungoikoari oparia eskiñi eutsan.

10. Melkisedek'ek ogia ta ardaoa eskintzen dauz (Gn 14)


Bein, errege arerio batzuk lurralde a indarrez azpiraztera etorri ziran. Uriak ondatu ta gizon asko lotuta eroan ebezan. Orduan, Abraan'ek, errege atzerritar arein aurka jagirik, arei irabazi ta areik eroan eben guztia barrero artu eutsen.

Abraan bere errira biurtu zanean, Melkisedek erregea urten yakon bidera. Onek, oparizat, ogia ta ardaoa eskiñi ebazan, Jaungoikoaren abadea zan-eta. Gero, Abraan bedeinkatu ta auxe esan eutsan: «Zeru-lurren Egille dan Jaungoiko Altsuak bedeinkatu dagiala Abraan!» Abraan'ek, barriz, guztiaren amarrenak emon eutsazan.

11. Abraan'ek bere semea eskintzen dau (Gn 22)

Abraan'ek Sara bere emazteagandik seme bat izan eban. Eta izena *Isaak* ezarri eutsan. Isaak mutiko egin zanean, Jaungoikoak Abraan'i auxe esan eutsan: «Isaak zure seme bakar eta kutuna artuta, izentatuko dautsudan mendian oparizat eskiñi egidazu!»

Abraan'ek, goizaldean jagirik, egurra txikitu ta bere asto-gaiñean ipiñi eban. Gero, morroi bi ta bere semea artu ta eurakaz joan zan. Irugarren egunean mendira eldu ziran. Orduan, Abraan'ek bere morroia auxe esan eutsen: «Itxaron emen astoagaz, ona biurtu gaitez arte!» Gero, egurra artu ta Isaak bere semearen lepoan ipiñi eban; sua ta aiztoa, barriz, berak eroiazan eskuan. Alantxe yoiazan biak batera.



Bidean, Isaak'ek bere aitari auxe esan eutsan: «Aita, sua ta egurra emen doguz; baiña, nun da oparitarako bildotsa?» Eta Abraan'ek: «Jaungoikoak aukeratuko dau, ene seme, oparitarako bildotsa.» Mendian altara bat egin eta gaiñean egurra ipiñi eban. Gero, Isaak bere semea lotu ta egur-gaiñean ipiñi eban. Orduan, eskuan aiztoa artu eban, semea ilteko.

12. Isaak bizirik urteten da (Gn 22)

Orduan, aingeru batek zerutik auxe esan eutsan: «Abraan, ez egin ezer mutikoari! Ikusi dot Jaungoikoaren bildur zareana.» Abraan'ek ingurura begiraturik, adari bat ikusi eban, sasi bati adarretatik lotuta. Adariari oratu ta, bere semearen orde, Jaungoikoari oparizat adaria eskiñi eutsan.

Aingeruak, bigarrenez, zerutik auxe esan eutsan: «Auxe dirautsu Jaunak: Zeure seme bakarra be ukatu ez daustazun ezker, bedeinkatu egin nai zaitut. Zure ondorengoak, zeruko izarrak lez, ugari izango dira. Eta

zure jatorrikoakaitik, lurreko erri guztiak bedeinkatuak izango dira.»

13. Jose'ri bere anaiak dautsoen gorrotoa (Gn 37)

Isaak'ek seme bat izan eban, eta izena Jakob ezarri eutsan.




Jakob'ek amabi seme izan ebazan. Gazteen biak Jose ta Benjamin ziran. Jakob'ek Jose eban seme guztietarik maiteen. Egun baten, soiñeko gorri apain bat be egin eutsan. Orregaitik, anai nagusiak ikusi-eziña eutsoen.

Bein, aren anaiak egitada lotsagarri bat egin eben, eta Jose'k aitari esan eutsan. Arrezkero, barbarik be ez eutsoen egiten.

Egun baten, Jose'k lotan ames bat izan eban, eta bere anaiak auxe esan eutsen: «Entzun lotan izan dodan amesa. Soloan gari-eskutak lotzen giarduan. Onetan, nire gari-eskuta jagi egin zan eta zuenak inguruan makurtu egiten yakozan.» Orduan, aren anaiak auxe esan eutsoen: «Geure errege izan nai dozu, ala?» Ames ori zala-ta, anaiak ikusi-ezin eta gorroto aundiagoa izan eutsoen.

14. Anaiak Jose saldu egiten dabe (Gn 37)

Bein, Jose'ren anaiak euren artaldeakaz urrungo lurralde batera joan ziran. Eta aitak Jose'ri auxe esan eutsan: «Zoaz, anaiak onik dagozan ikustera!» Eta Jose joan egin zan. Anaiak Jose etorrela ikusi ebenean, euren artean iñoen: «Begira, an dator gure ameslaria! Il daigun! Pizti



basati batek iruntsi dauala esango dogu gero.» Baiña, Ruben'ek auxe esan eutsen: «Il ez! Ez isuri odolik! Itxi egizue urzulo orretan.» Urzuloa utsik egoan, Jose bere anaiakana elduaz batera, ari soiñeko gorria erantzi ta urzuluan sartu eben.

Gerotxoago, merkatari atzerritar batzuk etorten ikusi ebazan. Orduan, Juda'k bere anaiak auxe esan eutsen: «Zer irabazten dogu gure anaiari bizia kenduaz? Obe da kanpotar orrei saltzea.»

Eta anaiak Jose urzulotik atara ta zidarrezko ogei dirutan saldu eben. Gero, arkume bat il eta odolaz Jose'ren soiñekoak bustirik, aitari bialdu eutsoen, auxe esanez: «Soiñeko au aurkitu dogu; ikusi egizu zeure semearena ete-dan.» Aitak, soiñekoa ezaguturik, deadarka esan eban:

«Bai, neure semearen soiñekoa da! Pizti basatiren batek iruntsi dau nire Jose!» Eta Jakob'ek negar egin eban luzaro bere semearen eriotzagaitik.

15. Jose, espetxera (Gn 39)

Merkatariak Ejipto'rantz jo eben. An, Putifar izeneko andiki bati saldu eutsoen. Jaungoikoa Jose'gaz zan, eta egiten eban guztia bide onetik yoian. Orregaitik, Putifar'ek bere ondasunen zaintzaille egin eban.

Putifar'en emaztea gaiztoa zan; Jose okertu ta pekatutan jausi-azotea nai eban. Jose'k, barriz, auxe esan eutsan: «Zelan egingo dot, ba, orrelako gaiztakeririk, neure Jaungoikoa irainduaz?» Alan be, emakumeak Jose zirikatu ta zirikatu egun oro. Egundaren, emakumeak soiñekotik eldu eutsan, beraganatzeko; baiña, Jose'k, soiñekoa aren eskuetan itxi ta iges egin eban etxetik kanpora.

Orduan, emakumea asarratu ta bere senarrari auxe esan eutsan: «Jose'k, nik beragaz pekatu egitea nai izan dau; orduan, ni deadarka asi, arek bere soiñekoa neure eskuetan itxi ta iges egin dau.»

Putifar'ek bere emazteari sinistu ta Jose espetxean sartu eban.

16. Jose'k amesetak azaltzen (Gn 40)

Espetxean be Jaungoikoa Jose'gaz zan. Espetxe-zaiñiak, Jose oso zintzoa zala ikusirik, espetxeko guztien buru egin eban.

Geroago, erregeak bere edarizaiña ta ogigiña espetxean sartu ebazan; euren jaunari gaiztakeri bat egin eutsoen. Goiz baten, biak arpegi-illun egozan, eta «Zegaitik gaur arpegi illunok?», itandu eutsen Jose'k. «Amesetan egin dogu biok, eta ez dogu iñor be ameson azalpena egin al daiskunik», erantzun eutsoen areik. «Esan egidazue zuen amesok», esan eutsen Jose'k.

Orduan, edarizaiña olantxe asi yakon: «Lotan nengoala, iru mordodun matsondoa ikusi neban. Mordoetako matsa elduta egoan. Mats-garaunai katillu batera ura

atara ta erregeari eskiñi neutsan.» Jose'k auxe erantzun eutsan: «Iru mats-mordoak iru egun dira. Iru egunon ondoren, erregeak barriro lengo arazoan jarriko zaitu. Izan nagizu gogoan lengo arazoa emon dagitzunean, eta egizu nire alde erregearen aurrean, toki onetatik atara nagian, emen erru bagarik nago-ta.»

Gero, ogigiñak bere amesa esan eutsan: «Nik iru otzara neroiazan buruan. Gaiñeko otzaran erregearentzat ogitxoak neukazan; baiña txoriak etorri ta jan egin ebezan.» Jose'k auxe erantzun eutsan: «Iru otzarak iru egun dira; iru egunon ondoren, erregeak samea ebagi ta eskegi egingo zaitu. Txoriak zeure aragia jatera etorriko dira.»

Iru garren egunean, erregeak bere jaioteguna ospatzen ziarduan. Bazkaritan, bere edarizaiña ta ogigiña ekarri ebazan gogora. Edarizaiña lengo arazoan jarri eban, eta ogigiña egurrean eskegi, Jose'k esan eutsenez. Edarizaiñak, alan be, lengo arazoa artu ebanean, ez eban Jose gogora ekarri.

17. Jose, goratua (Gn 41)

Urte bi geroago, Ejipto'ko erregeak be ames bat egin eban. Nilo ibaitik zazpi bei lodi ta ederrak urtetan zirala egin eban amesetan. Arein ondoren, zazpi bei itxusi ta argalak etorri ta zazpi bei lodiak jan egin ebezan. Orduan, erregea iratzartu, barriro loak artu ta beste ames au egin eban: Gari-lasto berborean zazpi galburu eder eta garauenez beteak azi ziran, baita zazpi galburu me ta utsak be; eta azken oneik zazpi galburu ederrak iruntsi egin ebezan.

Iñok be ezin igarri ebazan erregearen ameson zentzuna. Eta bat-batean, edarizaiñak Jose gogora ekarri ta auxe esan eban: «Ba-dago espetxean gazte bat, errege-etxeko ogigiñari ta niri guk egin genduzan ames bi igarri cuskuzana.» Orduan, erregeak Jose'ri dei egin eta bere amesak esan eutsazan. Eta Jose'k auxe esan eutsan: «Zazpi bei ederrak eta zazpi galburu beteak zazpi urte ugaritsu dira. Zazpi bei argalak eta zazpi galburu utsak, barriz, zazpi gose-urte. Lenen, zazpi urte ugaritsuak etorriko dira, eta gero, beste zazpi gose-urte Ejipto'ko lurralde osoan.

Orregaitik, ba, aukeratu egizu gizon argi ta zuur bat. Onek, zazpi urte ugaritsuetan, batu dagiala eurrez gelditzen dan garia, eta zazpi gose-urteetarako gorde.»

Berbok Faraon'ek oso atsegiñez entzun ebazan, eta Jose'ri auxe esan eutsan: «Ez dot arazo ori beteteko zeu baiño gizon burutsu ta jakitunagorik aurkituko. Ejipto osoan nagusi egiten zaitut.» Ori esanda, bere atzamarretik eraztuna kendu ta Jose'ren atzamarrean sartu eban. Soiñeko eder bat be emon eutsan, eta urrezko kataia samarako; gero, bere burdian jarrerazo eban, lurralde guztian ibilli zeiten. Andra-gizon guztiak goratu bear eben Jose.

Jose'k esan ebanez, eldu ziran lenengo zazpi urte ugaritsuak, eta Jose'k garia batu ta gordeteko agindu eban. Gero, beste zazpi gose-urteak eldu ziran. Erria erregeari ogi-eske asi yakon. Eta erregeak: «Zoaze Jose'gana.» Orduan, Jose'k bere garautegiak zabaldu egin ebazan, garia saltzeko. Erbesteko errietatik be Ejipto'ra etozan, garia erostera.

18. Jose'ren anaiak Ejipto'ra doaz (Gn 42)

Kanaan'go lurraldean be gosete gorria zan. Orregaitik, Jakob'ek bere semeak Ejipto'ra bialdu ebazan, garia erostera. Ez eban, orraitio, Benjamin bialdu, zoritxarren bat jazo ez ekion. Anaiak onik eldu ziran Ejipto'ra; Jose'gana etorri ta lurreragiño auzpaztu yakozan. Jose'k berealaxe ezagutu ebazan, baiña areik ez eben anaia ezagutu. «Nundik zatoze?», itandu eutsen Jose'k. «Kanaan'dik gatoz —erantzun eutsoen areik—, eta garia erosi nai geuke.» «Zuek salatariak zaree —esan eutsen Jose'k—, eta lurralde au maltzurkeriz ezagutzera zatoze.» Eta areik: «Ez, jauna, ez: gu baketsuak gara! Amabi anai gara; txikiena aitagaz gelditu da, eta bestea ez da bizi.» «Len esan dodana —erantzun eutsen Jose'k—: zuek salatariak zaree.» Eta espetxean sartu ebazan.

Irugarren egunean, bere aurrera ekarri ta auxe esan eutsen: «Zuetariko bat espetxean geldituko da; besteok, barriz, joan zaitekeze gariak zuen lurraldera, eta ekarri nigana zuen anai txikiena. Olantxe jakingo dot egia esan

dozuen.» Orduan, anaiak alkarri auxe zirautsoen: «Bidezko da, benetan, gure zoritxar au, Jose gure anaiaren aurka pekatu egin genduan-eta.» Jose'k Simeon'i anaien aurrean besoak lotu eutsazan. Gero, bere morroiai auxe esan eutsen: «Bete egiezuez gariz zorroak, eta zorro-barruan baktxari bere dirua sartu.» Baita biderako jatekoa be emon eutsen. Gero, anaiak auxe esan eutsen: «Zoaze etxera ta ekarri egidazue zuen anai txikiena.»

Anaiak etxera biurtu ziran. Jazo izan yaken guztia esan eutsoen aitari. Zorroak ustu ebezanean, barruan dirua aurkitu eban.

19. Jose'ren anaiak bigarrenez Ejipto'ra (Gn 43)

Garia amaitu izan yakenean, Jakob'ek semeai auxe esan eutsen: «Zoaze barriro Ejipto'ra, garia erostera.» «Gure seme txikiena be geugaz eroan bear dogu —erantzun eutsan Juda'k—, Geugaz biurtuko dala agintzen dautsut.» Eta aitak: «Orrela ba'da, eroan, ba, Benjamin be!»

Beraz, anaiak Ejipto'ra Benjamin'egaz joan ziran. Jose'k, anaiak etorri zirala jakin ebanean, etxezaiñari auxe esan eutsan: «Eroan egizuz gizonok etxera ta bazkaria gertatu, neugaz bazkaldu dagien.» Etxezaiñak alantxe egin eban. Gero, Simeon be ekarri eban, arekaz egoteko.

Jose sartu zanean, anaiak lurreragiño auzpaztu ta aitaren izenean ekarritako opariak eskiñi eutsoezan. Jose'k areik agurtu ta auxe esan eutsen: «Onik dago zuen aita zaarra?» Eta anaiak: «Bai, bizi da oraindiño gure aita, eta onik dago.» Gero, Jose'k Benjamin'i begiratu ta itaun au egin eban: «Ori da zuen anai txikiena? Jaugoikoak bedeinkatu zagizala, ene seme!» Maian, andienetik txikienara jarri ebazan. Anaiak arrituta egozan. Jan eta edan egin eben, eta poz-pozik egon ziran.

20. Jose'k bere burua agertzen dautse (Gn 45)

Jose'k, geiago egon eziñik, negarrez esan eutsen: «Ni Jose naz, zuon anaia, zuek saldu zenduena. Bizi da oraindiño nire aita?» Anaiak, bildurrez beterik, ezin eben ber-

barik esan. Orduan, Jose'k maitekiro egin eutsen berba: «Ez larritu. Jaungoikoak ekarri nau Ejipto'ra ta lurralde guzti onen nagusi egin nau. Biurtu zaitezte arin nire aitagana, eta ona ekarri egidazue. Neuk zainduko zaituet, bost urtean gosetea izango da-ta.» Gero, Benjamin bere anaia ta beste anai guztiak besarkatu ta laztandu egin ebazan. Orduan, bai, anaiak aregaz berbetan asi ziran.

Jose'k aitarentzat burdiak eta jatekoak emon eutsezan, eta areik euren etxera biurtu ziran.

21. Jakob Ejipto'ra doa (Gn 45-50)

Jose'ren anaiak, aitagana biurtu ziranean, auxe esan eutsoen: «Jose, zure semea, bizi da oraindiño, eta Ejipto osoaren jabe da.» Jakob'ek ez eban sinistu nai izan; baiña, Jose'k bialduriko burdiak ikusirik, auxe esan eban: «Il baiño len, joan eta ikusi egingo dot.»

Jakob, berak eukan guztiaz, Ejipto'ra joan zan. Jose, agurtzera urten yakon. Alkar ikusi ebenean, Jose'k aita besarkatu ta negar egin eban. Aitak auxe esan eutsan: «Orain, bai, pozik il naiteke, barriro ikusi zaitut-eta.»

Jose'k bere aita ta bere anaiak erregeagana eroan ebazan, eta onek auxe esan eutsan: «Lurraldeko bazterrik onenean bizi daitezala.»

Jakob il zanean, anaiak larritu egin ziran, Jose'ri egindako gaiztakeriaren ordaiña eurai biurtuko eutselakoan. Orregaitik, parka-eske joan yakozan. Eta Jose'k: «Ez bildurtu. Asmo txarrez egin zeustena, Jaungoikoak onerako biurtu dau. Zuek eta zuen seme-alabak neure ardu-rapean egongo zaree.»

Jose'k, laster ilgo zala ezagaturik, bere anaiak dei egin eta auxe esan eutsen: «Jaungoikoak Kanaan'era erango zaitue barriro; eroan egizuez zuekaz batera nire azurrak be.»

22. Moises, eriotzatik askatua (Ex 1-2)

Ejipto'n, Jakob'en jatorrikoak ugaritu ta erri andi bat egin eben. Jakob'ek Jaungoikoagandik izena *“Israel”*



artu eban, eta orregaitik, eurak be eurentzako izena *“Israel'en semeak”* edo *“israeldarrak”* artu eben; beste erriak, barriro, arei *“ebertarrak”* eritxen.

Jose'ren ezaguerarik ez eban errege barri bat jarri zan Ejipto'n. Israel'en semeak geroago ta gogorrago artzen ebazan. Lan oso neketsuak eragitera beartzen ebazan. Azkenez, agindu au emon eban: «Israeldarren ume jaiobarri guztiak Nilo ibaira jaurtiak izan bediz.» Aldi aretan, israeldar andra batek ume bat izan eban, iru illebeteen ezkutuan eukirik. Baiña, orrela ezkutuan luzarago euki ezifilik, iizko otzara bat egin, erretxiñaz eta uiaz ondo igurtzi, umetxoa bertan etzun eta ibai-ertzeko kaiñabera-artean ipifini eban. Umetxoaren arrebea inguru aretan gelditu zan, zer jazoko zain.

Laster, erregearen alabea etorri zan; eta kaiñabera-artean otzarea ikusirik, aren billa neskame bat bialdu eban; eta otzarea edegirik, umetxoa aurkitu eban negar-baten. Errukiz beterik, auxe esan eban: «Ebertarren umeren bat da au, urrean.» Orduan, umearen arrebeak, ariñeketan urreratu ta auxe esan eutsan: «Nai al-dozu ebertar andra baten billa joan naiten, umea azi dagitzun?» «Zoaz,

bai», erantzun eutsan erregearen alabeak. Orduan, neska-tillea bere amari dei egitera joan zan.

Amak bere semetxoa artu ta berak azi eban. Umea mutiko egin zanean, amak erregearen alabeari eroan eutsan, eta onek semetzat artu ta, «Izena *Moises* izango dau», esan eban.


23. Jaungoikoak Moises aukeratzen dau (Ex 3-4)

Moises gizon egin zanean, erregearen jauregia bertan-beera itxi ta israeldarrakaz joan zan. Lanean lagundu ta ejiptoarren aurka zaindu ebazan. Erregeak, orren jakitun



eginda, bizia kendu nai eutsan. Baiña, Moises'ek erbestera egin eban iges. An, ardiak zaintzen asi zan.

Bein, Moises bere artaldeagaz basamortuan aurrera joan zan. Orduan, sasi batetik urteten zan sugarrean Jauna agertu yakon; sasia sutan bai, baiña ez zan erreten. Moises urreratu zanean, Jaungoikoak dei au egin eutsan: «Moises, Moises, ez urreratu; erantzi oiñetakook: zu zagozan tokia lur santua da-ta.» Moises'ek bere arpegia estaldu ta ez eban Jaungoikoari begiratzeko adorerik.



Eta Jaungoikoak auxe esan eutsan: «Ikusi dodaz nire erriaren naigabeak. Arerioakandik askatu, eta esnea ta eztia darion lurraldera eroan nai dot. Zeuk zuzendu bear dozu nire erria Ejipto'tik ara. Neu izango naz zugaz.» Moises Ejipto'ra joan zan, Jaungoikoaren agindua betetera; eta *Aaron* bere anaia urten yakon bidera, Jaungoikoaren eragiñez. Moises'ek dana azaldu eutsan.

24. Moises'ek israeldarrak Ejipto'tik atara (Ex 7-13)

Moises'ek eta Aaron'ek, erregeagana etorririk, auxe esan eutsoen: «Israel'en Jaungoikoak zuri agindu au esatera bialdu gaitu: Itxi egiozu nire erriari Ejipto'tik urteten.» Baiña, erregeak ez eban ori nai izan, eta israeldarrak geiago estutzen eta mintzen asi zan. Orregaitik, Jaungoikoak zigortu egin eban gosete ta gaitz askoren bidez. Alan be, erregeak ez eban ikararik egin. Orduan, Moises'ek eta Aaron'ek erria batu ta auxe esan eutseen: «Il onen ama-laugarren egunean, etxe bakotxak bildots bat ilgo dau, ari azurrik ausi bagarik; eta aren odolaz zuen etxeko ateburuak bustiko dozuez, ezaugarritzat. Aren okelea sutan erre ta legamin bagariko ogiaz gau berean jango dozue. Gau aretan, Jaungoikoa igaroko da Ejipto'ko lurraldetik, eta

ejiptoarren lenseme guztiak il egingo dauz; zuen etxeetako ezaugarria ikusirik, barriz, aurrera igaroko da, zuei kalterik egin bagarik.» Israeldarrak zeatz-zeatz bete eben Jaungoikoak agindu eutsena. Gaberdian, Jaungoikoaren aingeruak ejiptoarren lenseme guztiak il ebazan.


Gau aretan bertan, erregeak Moises'i ta Aaron'i dei egin eta auxe esan eutsen: «Zoaze nire lurraldetik eta otoitz egizue nire alde.»

Beingo baten, israeldar guztiak euren gauzak artu ta agindutako lurralderantz urten ziran. Moises'ek auxe esan eutsen: «Egun au urte oro ospatuko dozue, eta zuen lensemeak Jaunari eskifiko dautsazuez.»

25. Israeldarrak Itxaso Gorria oiñez igaro (Ex 13-14)

Jaungoikoa yoian israeldarren aurrean, arei bidea erakusten: egunez laiño-moltzo baten eraz eta gabez su-moltzo baten eraz. Eta alan, Itxaso Gorri'ra eldu ta bertan gelditu ziran.

Laster damutu zan erregea arei joaten itxiaz. Bere burdi guztiak gertuteko agindu eban, bere gudarozte guztiagaz arein aurka joateko. Itxaso Gorri ondoan arrapatu ebazan.



Eurakana urreratzen zirala ikustean, israeldarrak bildur-ikaraz jarri ta Jaunari erregutzen asi ziran. Baiña, Moises'ek auxe esan eutsen: «Ez bildurtu; Jaunak egingo dau gure alde.» Laiño-moltzoa jagi ta ejiptoarren eta israeldarren bitartean jarri zan. Orduan, Jaungoikoak Moises'i auxe agindu eutsan: «Luzatu egizu zure makillea itxas-gaiñera.» Moises'ek alantxe egin eban. Bat-batean, urak erdibitu egin ziran, ezker-eskumaldean orma-antzekoa egiñik; eta israeldarrak bide legor aretatik igaro ziran, oiñik busti bagarik.

Biaramon goizean, ejiptoarrak bide beretik yoiazan arein atzean. Bide erdi egin ebenean, Jaunak Moises'i auxe esan eutsan: «Luzatu egizu zure eskua itxas-gaiñera.» Moises'ek esana egin eban. Bat-batean, urak batu egin ziran, erregearen burdi ta gudari guztiak olatueta ondaturik. Alantxe atara ebazan onik Jaunak israeldarrak ejiptoarren eskutik; eta erriak, Jaungoikoaganako bildurretan, Jaunari eskerrak emon eutsazan.

26. Jaungoikoak israeldarrai basamortuan janaria ta edaria emoten dautse (Ex 16-17)

Itxaso Gorria igaro ondoren, israeldarrak basamortura eldu ziran. Emen, janaria gutxitzen asi yaken, eta mormoxetan asi ziran. Orduan, Jaungoikoak auxe esan eutsen: «Illuntzean okelea izango dozue janarizat, eta goizean ogia ugari. Alantxe ezagutuko dozue ni Jauna nazana.» Illuntzeruntz, galeperrak etorri ziran, israeldarrak egozan tokia estaltzeraiño; eta goizean, irartzartzean, lurra iruntza lako garaun zuri-zeez estalduta gelditu zan. «Zer da au?», zirautsoen alkarri israeldarrak. «Au, Jaunak bialtzen dautsuen ogia da», erantzun eutsen Moises'ek. Izena "mana" ezarri eutsoen; agoan, ezta antzekoa zirudian. Israeldarrak *mana* berrogei urtean izan eben janarizat, Kanaan'go lurraldera eldu arte.

Beste bein, ez eben urik. Eta Jaunak Moises'i auxe esan eutsan: «Artu egizu zure makillea ta jo atxa; berealaxe sortuko da ura.» Eta alantxe jazo zan.



27. Jaungoikoaren amar aginduak (Ex 19-20)

Ejipto'tik urtenda irugarren illebetera, israeldarrak *Sinai* mendira eldu ta bertan gelditu ziran. Mendi-barrean txabolak jaso ebezan. Moises mendira igo zan, eta Jaunak onetara egin eutsan berba: «Auxe esan egiozu erriari: Garbitu egizuez zuen jantziak; etzi gertu egon bear dozue. Adarrotsa entzun dagizuenean, etorri guztiok mendira.»

Moises'ek, Jaunak agindu izan eutsanez egin eban. Irugarren eguneko goizean, trumoiak eta oiñaztuak asi ziran. Laiño illun bat mendi-tontorrean, eta sekulako adar-otsa. Erri guztia, lauorritan. Moises'ek israeldarrak txaboletatik atara ta mendi-ondora eroan ebazan, eta gero, Jaungoikoak auxe esan eban:

“*Neu naz zure Jaungoiko Jauna*”

1. *Ez dozu sasi-jaungoikorik izango.*
2. *Jaungoikoaren izena goratu egingo dozu.*
3. *Zapatua jai egingo dozu.*
4. *Zure gurasoak aintzat izango dozuz, lurrean onik eta luzaro bizi zaitez.*

5. *Ez dozu iñor ilgo.*
6. *Ez dozu aragikeririk egingo.*
7. *Ez dozu ostuko.*
8. *Ez dozu guzurrik esango, eta ez dan gauzarik be ez dautsazu iñori ezarriko.*
9. *Besteren senar naiz emazterik ez dozu gura izango.*
10. *Besteren ondasunik ez dozu gura izango.*

Israeldarrak dardaraka esan eban: «Jaunak agindu dauan guztia gorde ta beteko dogu.» Moises barriro mendira joan eta bertan gelditu zan berrogei egunez eta berrogei gabez. Orduan, Jaunak arri bi emon eutsazan; antxe idatzi ebazan Berak amar aginduak.

28. Moises'ek txabola santua egiten dau (Ex 25-27)

Sinai-mendian, Jaunak Moises'i auxe esan eutsan: «Kutxa bat egingo daustazue. Zeuon erdian bizi nai dot.» Orduan, Moises'ek ertilari batzui *txabola santua* egiteko agindu eutsen. Zurezkoa zan, urre gorritz apaindua. Israel-darrak beste toki batera joaten ziranean, olak toleztu ta eurakaz eroaten eban. Txaboleak alde bi ebazan; alde batean, *Alkartasun-Kutxa* egoan. Alkartasun-Kutxan, amar aginduen arri biak gordeten ziran.

29. Jaungoikoak abadeak erutzen dauz (Ex 29)

Jaunak Moises'i auxe esan eutsan: «Aaron eta onen semeak abadegintzan izango yataz morroi.» Eta Moises'ek Aaron, bere anaia, *abadeburu* egin eban, eta Aaron'en semeak eta onen ondorengoak *abade*.

Berrogei urte ondoren, israeldarrak Kanaan'era eldu ta bertan gelditu ziran.

30. Dabid, Goliat gizontzarraren aurka (1 Sam 17)


Kanaan lurraldeko Belen'en, Isai izeneko gizon bat bizi izan zan. Aren seme txikiena *Dabid* zan. Onek, bere aitaren artaldeak zaintzen ebazan; arpea jotzen be ederto ekian. Israeldarren eta filistearren arteko gudatean, Dabid'en anaiak gudari egin ziran. Egun baten, aitak Dabid

bialdu eban arekana, onik egozan jakitera. Dabid guda-zelaira eldu zanean, filistearrenartetik gizontzar bat urten zan. Aren izena *Goliat* zan. Onek israeldarrai eupadaka esan eutsen: «Aukeratu egizue zuen artean gizonen bat, nigaz burrukan egin dagian. Berak ilten ba'nau, zeuon morroi izango gara; neuk ilten ba'dot, barriz, zeuok gedituko zaree gure menpean.» Israeldar guztiak kikilduta egozan.

Orduan, Dabid'ek urten eta, «Neuk egingo dot burrukan orren aurka», esan eban. Eta eskuan bere artzainmakillea arturik, errekan bost arri biribil aukeratu ta bere zorroan gorde ebazan; gero, bere abailla artu ta gizontzarraren aurrera joan zan.

Goliat'ek Dabid ikustean, auxe esan eutsan: «Txakurra al naz ni, nigana makilla bataz etorteko?» Eta Dabid'ek erantzun: «Zu, ezpata, lantza ta babeskiñaz zatoz nire aurka; ni, barriz, Jaunaren izenean nator zure aurka.»

Gero, Dabid'ek bere zorrotik arri bat artu ta Goliat'en aurka jaurti eban. Arriak Goliat bekoki-bekokian jo ta gizontzarra lurrera jausi zan luze-luze. Orduan, Dabid'ek, aregana arifeketan joan, ari ezpatea kendu ta samea ebagi eutsan.



31. Jaungoikoaganako gurtza (2 Sam 5-7)

Jaungoikoak Dabid israeldarren errege egin eban. Dabid'ek, bere erriaren arerio guztiak menperatu ebazan. *Jerusalen* aukeratu eban bere erreñuko uri nagusitzat. *Jerusalen*'go Sion mendian txabola barri eder bat egin eban, Jaungoikoa gurtzeko. Araxe eroan eben ospatsu abadeak Alkartasun-Kutxa. Dantzari ta soiñulari asko yoiazan lagun-artean; Dabid bera be arpa-joten joan zan Kutxaren aurrean.

Gero, Jaungoikoaganako gurtza eratu eban. Abadeak, aste oro txandaka, Jaungoikoa gurtu bear eben opari, otoitz eta eresiz.

Errege zintzo arek, Jaungoikoaren argitasunez, etorkizun asko iragarri ebazan Salbatzailleari buruz, eta dana berak iragarri izan ebanez jazo zan.

32. Salomon'ek eliza bat egiteko agintzen dau (1 Re 6)

Dabid il zanean, *Salomon*, aren semea, izan zan errege. Jaungoikoa maite ta bere aitaren irakatsiai jarraitu eutsen. Jaunak jakituria ta ondasunak emon eutsazan saritzat. Jaungoikoaren guraria beteteko, *Solomon*'ek *Jerusalen*'en eliza eder bat egiteko agindu eban. Erri guztiaren artean, Alkartasun-Kutxa elizara eroan eben, eta *Salomon*'ek, Kutxaren aurrean belauniko, otoitz au egin eban: «Entzun, Jauna, toki onetan egiten dautsuezan eskariak.» Orduan, Jaunak *Salomon*'i auxe esan eutsan: «Nire begiak eta biotza etxe onetan egongo dira egun oro.»

Salbatzaillearen zain

Geroago, israeldarrak "*judarrak*" izenaz izan ziran deituak; eurak ziran egiazko Jaungoikoa gurtzen eban erri bakarra. Beste erri guztiak, *jentillak* ziran. Sasi-jainkoak gurtu ta bizikera okerra eroien.

Judarretarik geienak be ez eutsoen Jaungoikoari zintzotasunik gorde, pekatu asko egiten ebezala; orregaitik, Jaungoikoak bere *igarleak* edo *profetak* bialdu eutsezan.

Gizon oneik erriari zeruko bidea irakatsi ta Jaungoikoagana biurtu zedilla esaten eutsoen. Alan be, askok ez eutseen arein burubideai jaramonik be egiten.

Azken-aldian, erri guztia pekatutan eta galbidean jausita egoan. Gizonak Salbatzaille baten zain egozan. Jaungoikoak ori paradisuan iragarri izan eban; geroago, igarleak be egin eben berba Aretzaz. Zintzoak, eurrez eta gogotsu egiten eutsoen Jaungoikoari eskari au: «Bialdu egiguzu agindutako Salbatzaillea!» Azkenez, Jaungoikoak arein eskaria entzun eta bere Semea bialdu eban lurrera: *Jesukristo gure Jaun eta Salbatzaillea.*



ALKARTASUN BARRIA

1. Aingeruak Maria'ri barri ona iragarri (Lk 1, 26-38)

Jaungoikoak Gabirel aingerua bialdu eban neskatilla bategana; au, *Jose* izeneko gizon bati ezkontzeko itza emonda egoan. Eta neskatillaren izena *Maria* zan. Aingeruak onegana urreratu ta auxe esan eutsan: «Agur, graziaz bete ori! Jauna da zugaz.»

Ori entzutean, Maria ikaratu egin zan, eta arelako agurra zer izan zeitekean erabillen buruan. Baiña, aingeruak auxe esan eutsan: «Ez bildurtu, Maria! Jaungoikoak aukeratu zaitu; seme bat izango dozu, eta izena *Jesus* ezarriko dautsazu. Andia izango da, eta *Gorengoaren Seme* egingo dautsoe dei.»

Orduan, Maria'k aingeruari auxe esan eutsan: «Zelan izan daiteke ori?» Eta aingeruak erantzun: «Espiritu Santua jatsiko da zugana; Jaungoikoarentzat ez dago eziñik.» Orduan, Maria'k auxe esan eban: «Ona emen Jaunaren mirabea; egin bedi nigan zeuk diñozunez.»

2. Maria, Elizabet bere senidea ikustera (Lk 1, 39-56)

Aldi aretan, Juda'ko mendietan Zakarias izeneko abade bat bizi zan, Elizabet bere emazteagaz; biok zintzoak ziran Jaungoikoaren aurrean.

Gabirel aingeruak Maria'gandik alde egin ebanean, Maria bere senide Elizabet ikustera joan zan. Zakarias'en etxean sartzean, Elizabet'ek, Espiritu Santuz beterik, Maria agurtu ta auxe esan eutsan: «*Bedeinkatua zara zu andra guztien artean, eta bedeinkatua zure sabeleko frutua*. Nor naz, ni, baiña, nire Jaunaren ama etorri dakidan?» Eta Maria'k erantzun: «Nire biotzak Jauna goratzen dau, guztiz Altsuak nigan arrigarriak egin dauz-ta.» Iru illebete-edo egon zan Maria Elizabet'egaz, eta gero, bere etxera biurtu zan.

Elizabet'ek seme bat izan eban, eta gurasoak izena *Yon* ezarri eutsoen.

3. Jesus'en jaiotza Belen'en (Lk 2, 1-7)

Egun areitan, Augusto agintariak bere lurraldean bakotxak bere izena emon egiala agindu eban. Guztiak yoiazan izena emotera, bakotxa bere urira.

Jose be, Dabid'en jatorrikoa zan ezkerro, Belen izeneko urira joan zan, Maria bere emazteagaz. Ostatuan tokirik ez aurkitzean, uri-ondoko korta baten gelditu ziran. An egozala, Maria'k semea izan, oialetan batu ta aska baten ipiñi eban.

4. Artzaiñak, Jesus gurtzera (Lk 2, 8-21)

Lurralde aretako zelai batzuetan, artzain batzuek gabez euren artaldea zaintzen ziarduen; eta bat-batean, Jaunaren aingerua ikusi ta bildurrez beterik gelditu ziran. Baiña, aingeruak nasaitu egin ebazan: «Ez izan bildurrik! Begira: barri pozgarri bat iragarten dautsuet. Gaur, Dabid'en urian, Salbatzaillea jaio da, *Kristo*, Jauna; eta auxe izango dozue ezaugarritzat: Ume bat oialetan batuta eta askan etzunda aurkituko dozue.»

Eta bat-batean, aingeruagaz zeruko talde andi bat alkartu zan, Jaungoikoa kantuz goratzen: «Aintza goietan Jaungoikoari, eta bakea lurrean Aren gogoko gizonai.» Aingeruak zerura biurtu ziranean, artzaiñak alkarri auxe zirautsoen: «Goazan Belen'era, an jazo dana ikustera.» Eta bereala, arakoxe bidea artu eben. Eta Maria, Jose ta askan etzunda egoan umea aurkitu ebezan. Umea ikusita gero, aingeruak ume aretzaz esan eutseen guztia iragarri eben. Artzaiñak, entzun eta ikusi izan eben guztiagaitik, Jaungoikoa goratzen eta ospatzen biurtu ziran.

Zortzi egun ondoren, umeari izena *Jesus* ezarri eutsoen.





5. Jesus'en elizan-sartzea (Lk 2, 22-38)

Jesus'ek berrogei egun bete ebazanean, Maria'k eta Jose'k Jerusalem'go elizara eroan eben, Jaunari eskintzera; eta legeko oparia eskiñi eben: usakume bi. Aldi aretan, *Simeon* izeneko gizon bat bizi zan Jerusalem'en. Zintzoa ta Jaungoiko-zalea zan. Salbatzaillea ikusi baiño len ez zala ilgo agertu eutsan Jaungoikoak. Espiritu Santuak eraginda, *Simeon* elizara joan zan; eta Jesus umea besoetan arturik, Jaungoikoa goratu eban: «Orain, bai, baketan il naiteke, ikusi dabe nire begiak Salbatzaillea-ta.»

Jerusalem'en, *Ana* izeneko andra alargun bat be bizi zan. Barau ta otoitzetan, gau ta egun Jaungoikoa ospatzen ziarduan. Ordu aretan bertan joan zan bera be elizara, eta Jaungoikoa goratu eban.

6. Sortzaldeko jakitunak Jesus gurtzera (Mt 2, 1-12)

Jesus Belen'en jaiota gero, Sortzaldeko jakitun batzuek Jerusalem'era etorri ta auxe itandu eben: «Nun dago judarren errege jaiobarria? Sortzaldean Aren izarra ikusi dogu, eta Bera gurtzera gatoz.» Ori entzutean, *Erodes* erregea arritu egin zan, eta *Kristo* nun jaioko zan itandu

eutsen idazlariari. Eta oneik, «*Juda*'ko Belen'en», erantzun eben. Eta *Erodes*'ek, jakitunak Belen'era bialdu ebazan, esanez: «Zoaze ta billatu egizue umea; aurkitu dagizue-nean, barriz, iragarri egidazue, neu be bera gurtzera joan naiten.»

Jakitunak alde egin eben. Sortzaldean ikusi izan eben izarra euren aurretik yoian, eta umea egoan toki-gaiñean gelditu zan. Etxean sartu ta umea aurkitu eben, Maria bere amagaz batera. Umearen aurrean belaunikotu ta gurtu egin eben, eta ekarri izan ebezan opariak eskiñi eutsoezan: urrea, intzetzua ta mirra.



Gabean, Jaungoikoak *Erodes*'egana ez biurtzeko agindu eutsen; eta esana egiñik, euren errialdera joateko, beste bide bat artu eben.

7. Ejipto'ra igesi (Mt 2, 13-23)

Jakitunak alde egin ebenean, Jaunaren aingeru bat Jose'ri amesetan agertu yakon, eta auxe esan eutsan: «Jagi zaitetz, umea ta bere ama artu ta Ejipto'ra iges egizu.

Umea ilteko, Erodes Aren billa dabil.» Bereala, Jose jagi, umea ta onen ama artu, eta Ejipto'ra egin eban iges.

Jakitunak ez etozala ikusirik, Erodes asarre gorritan jarri zan; eta Belen'en eta inguruetan izan zeitekezan urte birik beerako ume guztiak ilteko agindu eban.

Erodes il zanean, aingeru batek Jose'ri auxe esan eutsan: «Jagi zaitetz, artu umea ta bere ama, eta zoaz Israel'go lurraldera.» Jose'k esana egin eban; eta, umea ta onen ama arturik, Israel'go lurraldera biurtu ta Nazaret izeneko urian bizi izan zan.

8. Jesus, mutikotan, elizan gelditzen da (Lk 2, 41-52)

Jesus'en gurasoak urte oro Jerusalem'era joan oi ziran, Pazko-eguna ospatzera. Amabi urte bete ebazanean, Jesus be gurasoakaz joan zan. Jai-ostean, Maria ta Jose biurtu egin ziran; baiña, Jesus Jerusalem'en gelditu zan. Aren gurasoak, beste bidelagunen artean izango zalakoan, ez ziran orretzaz konturatu, eta egun bateko bidea egin eben. Gero, senide ta ezagunen artean Aren billa asi ziran.

Iru egun geroago, elizan aurkitu eben, irakasleen erdian jesarrita; arei entzuten eta itaunak egiten ziarduan.



Jesus'i entzuten eutsoen guztiak ikaratuta egozan, Aren jakituria ta erantzunak zirala-ta. Aren amak auxe esan eutsan: «Seme, zegaitik egin dauskuzu ori? Begira: zure aita ta ni estu ta larri ibilli gara zure billa.» Eta Jesus'ek erantzun: «Zegaitik ibilli zaree nire billa? Ez zekien, ba, neure Aitaren etxean egon bear dodana nik?»



Jesus bere gurasoakaz Nazaret'era biurtu zan, eta arein menpean bizi zan. Azi egiten zan jakituriz, gorputzez eta edertasunez Jaungoikoaren eta gizonen aurrean.

9. Jesus'en bateoa (Mt 3, 13-17)

Jesus ogetamar urteko zala, Nazaret'etik Jordan'era joan zan; an, Yon'ek erriari pekatuen damua irakasten eutsan. Judar askok Yon'egandik bateoa artu ta euren pekatuak autortzen ebezan.

Jesus be Yon'egana etorri zan, onek bateatu egian; Yon'ek, barriz, auxe esan eutsan: «Neu naz ni zuk bateatu bear nozuna; eta zeu zatoz nigana?» Eta Jesus'ek erantzun: «Egiten itxi egidazu orain.» Orduan, Yon'ek Jesus bateatu egin eban. Bateoa artuta gero, Jesus'ek uretatik urten eta otoitz egin eban. Bat-batean, zerua zabaldu ta

Espiritu Santua uso-irudiz jatsi zan Jesus'en gaiñera, eta, "Auxe da atsegin dodan nire Seme kutuna", entzun zan zerutik esaten.



Gero, Jesus basamortura joan zan. An, berrogei egunez eta berrogei gabez barau eginda gero, deabruak zirikatatu egin eban. Gero, erriari Barri Ona irakasten asi yakon. Eta ikasleen artetik amabi aukeraturik, *apostolu* izena emon eutsen. Oneitarikoak ziran Pedro, Santiago ta Yon.

10. Jesus'ek ura ardao biurtzen dau (Jn 2, 1-11)

Aldi aretan, Kana'n eztegu bat ospatu zan. Jesus'en ama be antxe zan, baita Jesus eta onen ikasleak be. Eta ardao bagarik gelditu ziralta konturaturik, Maria'k Jesus'i auxe esan eutsan: «Ez dabe ardaorik.» Eta Jesus'ek erantzun: «Ez da oraindiño nire ordua eldu.» Alan be, Maria'k morroia auxe esan eutsen: «Egizue esan dagitzuena.»

Ba-egozan an uretarako sei ontzi andi. «Ontziok urez bete egizuez», agindu eutsen Jesus'ek morroia. Eta morroiak, esana egiñik, goragiño bete ebezan. «Atara orain

eta eroan mai-zaiñari», esan eutsen Jesus'ek. Alantxe egin eben. Mai-zaiñak artu ebanean, ura ardao biurtuta egoan.

Axe izan zan Jesus'ek agiriz egindako lenengo miraria. Mirari aren bidez bere aintza agertu eban; eta ikasleak Jesus'egan jarri eben euren sinistea.



11. Jesus'ek eliza garbitzen dau (Jn 2, 13-16)

Jesus, Pazko-egunerako, bere ikasleakaz Jerusalem'era joan zan. Elizan idi, ardi ta uso-saltzailleak aurkitu ebazan, baita diru-aldatzailleak be, maietan jesarrita. Orduan, lokarriaz zardai bat egin eta guztiak elizatik kanpora bota ebazan; eta diru-aldatzailleen maiak itzulirik, uso-saltzailleai auxe esan eutsen: «Kendu au emendik, eta ez biurtu nire Aitaren etxea merkatari-etxe.»

12. Jesus'ek ikasleen arrantza bedeinkatu (Lk 5, 1-11)

Beste bein, Jesus Jenesarret'eko zingira-ondoan egoala, laguntaldea pilloka batu yakon, Jaungoikoaren itza entzutera. Orduan, ur-ertzean txalupa bi ikusi ebazan. Arrantzaleak, txalupetatik urtenda, sareak garbitzen ziarduen. Jesus, Pedro'ren txalupara igo ta erriari irakasten asi yakon.

Itzaldia amaitu ebanean, itxasora joteko ta sareak arrantzarako zabaltzeko agindu eutsan Pedro'ri. «Irakasle —erantzun eutsan Pedro'k—, gau osoan ekin dautsagu, eta ez dogu arrain bat be atara; alan be, zeuk diñozun ezker, botako dot, ba, sarea.» Eta alan egiñik, sareak urratzeragiñoko arrain-pillo andia atara eben. Laguntzera etorteko eskatu eutseen kiñuka beste txalupako lagunai. Etorri ziran, ba, oneik, eta ondatzeko zorian bete ebezan txalupa biak.

Ori ikusirik, Pedro Jesus'en oiñetara auzpaztu zan, esanez: «Alde nigandik, Jauna, pekataria naz-ta.» Baiña, Jesus'ek: «Ez bildurtu; aurrerantzean, giza-arrantzale izango zara.» Gero, txalupak legorrera eroan, guztia bertan-beera itxi ta Jesus'i jarraitu eutsoen.

13. Jesus'ek elbarridun bat osatu (Lk 5, 17-26)

Gero, Jesus Kafarnaun'era joan zan. Ango etxe baten irakasten ziarduan, bere inguruan laguntalde andia ebala. Onetan, lau gizonek elbarridun bat ekarri eutsoen, ogetxo baten. Baiña, laguntaldeagaitik, ezin urreratu izan yakozan. Orregaitik, teillatura igo, geisoa ogetxoan teillartetik eratsi ta Jesus'en aurrean ipiñi eben. Orduan, Jesus'ek geisoari auxe esan eutsan: «Gizon, parkatuak gelditzen yatzuz zure pekatuak. Jagi zaitetz, artu zure ogetxoa ta zoaz etxera.» Bat-batean, elbarriduna jagi, bere ogetxoa artu ta bere etxera joan zan, Jaungoikoa goratuez. Guztiak arrituta gelditu ziran eta Jaungoikoa goratu eben dea-darka: «Mirari bat ikusi dogu gaur!»

14. Jesus'ek euntariaren morroia osatu (Mt 8, 5-13)


Egun baten, Jesus barriro Kafarnaun'era joan zan. An, euntari baten morroia geisorik egoan, ogean. Euntariak, Jesus'egana etorri ta auxe esan eutsan: «Jauna, nire morroia geisorik dago etxean, ibilli eziñik eta oiñaze gorritan.» Eta Jesus'ek: «Neu joango naz eta osatu egingo dot.» Orduan, euntariak: «*Jauna, ez naz ni iñor zu neure aterpean sartu zaitetzan; baiña, berba bat esan egizu, eta nire morroia osatu egingo da.*» «Zoaz —erantzun eutsan

Jesus'ek—; jazo bekizu zeuk sinistu dozunez.» Eta ordu aretan bertan osatu zan morroia.

15. Jesus'ek Nain'go gazte bat biztu (Lk 7, 11-17)

Jesus, Nain izeneko urira yoian, eta beragaz batera bere ikasleak eta laguntalde andia. Uriko atera urrera-tzean, ildako bat eroien, ama alargun baten seme bakarra. Uriko laguntalde andia yoian alargunagaz.


Ama ikustean, Jesus erruki izan yakon, eta maitekiro esan eutsan: «Ez negarrik egin.» Gero, ilkutxara urreratu ta ikutu egin eban. Guztiak gelditu egin ziran; eta Jesus'ek, ildakoagana biurturik, auxe esan eutsan: «Gazte, zeuri dirautsut: jagi zaitetz!» Bat-batean, ildakoa jagi ta berba egiten asi zan. Eta Jesus'ek amari emon eutsan.



Ori ikusi eben guztiak, ikaratuta, Jaungoikoa goratzen eben, esanez: «Igarle andi bat agertu da gure artean!»

16. Jesus'ek itxasoan ekatxa baretu (Mt 8, 23-27)

Beste bein, Jesus txalupa batera igo zan, eta bere ikasleak jarraitu egin eutsoen. Onetan, ikaragarritzko aize-



-bolarea jagi zan itxasoan, olatuak txalupan sartzeragiño. Jesus, barriz, lotan.

Orduan, ikasleak urreratu ta irartzatu egin eben, esanez: «Jauna, lagun zakiguz, galduak gara-ta!» Eta Jesus'ek: «Zeren bildur zaree, siniste otzeko gizonok?» Gero, zutundu, aizeai ta itxasoari agindu, eta bat-batean barealdi ederra egin zan.

Gizon areik, ikaratuta, alkarri zirautsoen: «Nor dogu au, baiña, aizeak eta itxasoak be esana egiten dautsoen au?»

17. Jesus'ek Jairo'ren alabea biztu (Mk 5, 21-43)

Jesus itxasotik biurtu zanean, laguntalde andia batu yakon. Orduan, Jairo izeneko sinagogako nagusia urreratu yakon; eta Jesus'en aurrean auzpaturik, eskari au egin eutsan: «Jauna, nire alabea il-zorian dago. Etorri zaitez, eskuak ezarri egiozuz, osatu ta bizi daiten.» Jesus aregaz joan zan. Ikasleak eta laguntalde andiak jarraitu eutsoen. Bidean yoiazala, norbaitek Jairo'gana etorri ta auxe esan eutsan: «Zure alabea il egin da; ez egiozu, onezkero, Irakasleari gogaitik egin.»



Baiña, Jesus'ek, «Ez bildurtu —dirautso—. Izan egizu sinismena, eta alabea bizi izango da.»

Jairo'ren etxera elduta gero, Jesus ildakoaren gelan sartu zan, Pedro, Santiago ta Yon apostoluakaz eta neskatoaren gurasoakaz batera. Guztiak negarrez egozan; baiña, Jesus'ek ba-dirautse: «Ez negarrik egin. Neskatoa ez dago ilda; lo dago.» Gero, neskatoari eskutik oraturik, «Neskato, jagi zaitez!», esan eutsan. Bat-batean, neskatoa jagi ta ibiltan asi zan. Mirari au errialde guzti aretan jakin eben.


18. Jesus'ek ogiak ugaritzen dauz (Mk 6, 30-44)

Bein, Jesus'ek Barri Ona irakasten ziarduan. Berandu egin zanean, ikasleai auxe itandu eutsen: «Nun erosiko dogu ogia, oneik jan dagien?» Areitariko batek auxe erantzun eutsan: «Ba-dago emen bost garagar-ogi ta arrain bi daukazan mutil bat. Baiña, zer da au onenbestentzat?»

«Jesarri daitezala agindu egiozue laguntaldeari», esan eutsen Jesus'ek. Laguntaldea jesarri egin zan. Bost millaren bat gionezko ziran, emakume ta umeak zenbatu bagarik.

Orduan, Jesus'ek ogiak eta arrain biak artu, eskerrak emon, bedeinkatu ta bere ikasleai emon eutsezan; eta ikasleak laguntaldearen artean banandu ebezan. Guztiak jan eben gura-aiña.

Gero, Jesus'ek ikasleai auxe esan eutsen: «Batu egitez gelditu diran zatiak, alperrik galdu ez daitezkan.» Batu



ebezan, ba, eta amabi otzara bete ebezan. Mirari ori ikusi eban laguntaldeak ba-ñoan: «Auxe da, benetan, lurrera etorteko dan igarlea!»

19. Jesus itxasoko olatu-gaiñean oiñez (Mt 14, 24-33)

Jesus'ek, bera errege egin nai ebela konturatu zanean, laguntaldea itxi ta mendira egin eban iges, bakar-bakarrak, otowitz egitera. Illuntzean, ikasleak txalupa bat artu ta Kafarnaun'era yoiazan. Itxas-erdian zirala, aizeak indar andia artu ta itxasoa arrotzen asi zan. Olatuak txalupea dinbili-danbala erabillen. Goizaldean, Jesus urreratu yaken, itxas-gaiñean oiñez. Ikasleak, ikusten ebena mamua zala-koan, ikaratu egin ziran; baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Neu naz; ez bildurtu!» Orduan, Pedro'k eskari au egin

eutsan: «Ur-gaiñean zeugana joateko agindu egidazu!» Eta Jesus'ek: «Etorri zaitetz.» Eta Pedro txalupatik urten eta ur-gaiñean ibiltzen yoian. Baiña, aizearen indarra somaturik, Pedro bildurtu ta bereala murgiltzen asi zan. Bildurrez beterik, «Jauna, salbatu nagizu!», esan eban. Jesus'ek eskutik oratu ta auxe esan eutsan: «Siniste otzeko gizon ori: zegaitik egon zara ezbaitan?» Eta Jesus txalupan batu yakenean, aizea gelditu ta txalupea berealaxe eldu zan legorrera.

20. Jesus'ek zeruko ogia agintzen dau (Jn 6, 25-69)

Biamonean, Jesus ikasleakaz Kafarnaun'go sinagoga yoian. Antxe aurkitu eban miragarriro janaritu eban laguntaldea. «Irakasle, noiz etorri zara, ba, ona?», itandu eutsoen, Eta Jesus'ek: «Ogiak jan eta bete zarelako zabize zuek nire billa. Ez arduratu alperrik galtzen dan janaria-gaitik, neure Aitak emongo dautsuen zeruko benetako ogiagaitik baiño.» Orduan, areik auxe esan eutsoen: «Jauna, emon egiguzu beti ogi ori.» Eta Jesus'ek: «Neu naz ogi bizia. Ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da. Nik emongo dodan ogia, munduaren bizirako neure aragia da.»

Ori entzutean, judarrak alkarregaz estabaidan asi ziran: «Zelan emon daikegu onek bere aragia jateko?» Eta Jesus'ek: «Bene-benetan dirautsuet: Gizasemearen aragia jaten eta beronen odola edaten ez ba'dozue, ez dozue bizitzarik zuekan. Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dauko, eta neuk bizituko dot alakoa azken-egunean. Izan be, nire aragia benetako janari da, eta nire odola benetako edari. Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, neugan dago, eta ni beragan.»

Ikasletariko askok auxe iñoen: «Nok sinistu olakorik?» Eta, arrezkero, areitariko askok ez eutsoen jarraitzen. Orduan, Jesus'ek bere amabi apostolui itaun au egin eutsen: «Zuek be alde egin nai dozue nigandik?» Eta Simon Pedro'k: «Jauna, zuk betiko bizitzako berbak dozuz, eta guk sinistu ta ba-dakigu zu Kristo, Jaungoikoaren Semea, zarana.»

21. Jesus'en irudi-aldatzea (Mk 9, 1-13)

Egun batzuk geroago, Jesus'ek Pedro, Santiago ta Yon beragaz artu ta mendi goi batera daroaz. An otoitz egiten ziarduala, irudiz aldatu egin zan: Jesus'en arpegia eguzkia baizen diztiratsu egin zan eta Aren jantziak edurra baizen zuri biurtu ziran. Onetan, Moises eta Elias agertu yakeezan, Jesus'egaz berbetan. Ikasleak Jesus'en aintza ikusi ta



Pedro'k ba-dirautso: «Jauna, ederto gagoz emen; egin daiguzan iru txabola: bata zeuretzat, bestea Moises'entzat, eta bestea Elias'entzat.»


Bat-batean, laiño argitsu batek estaldu egin ebazan, eta auxe entzun zan laiñotik esaten: «Auxe da atsegin dodan nire Seme kutuna. Entzun egiozue.» Ikasleak auzpaz jausi ziran bildur-ikaraz. Jesus urreratu yaken eta, «Jagi zaitetze ta ez bildurtu!», esan eutsen. Areik, begiak jasorik, Jesus bakarrik baiño ez eben ikusi eurakaz. Gero, jatsi egin ziran menditik Jesus'egaz.

22. Jesus'ek maitasun-agindua emoten dau (Lk 10, 25-28)

Lege-gizon batek Jesus'i itaun au egin eutsan: «Ira-

kasle, zein da Legeko agindurik nagusiena?» Eta Jesus'ek erantzun: «Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo osoaz, ezaguera osoaz eta indar guztiaz maitatuko dozu. Auxe da agindurik nagusiena ta lenena. Bigarrena, barriz, orren antzekoa da: Zure lagun-urkoa zeure burua lez maitatuko dozu.»

Jesus'ek beste au be esan eban: «Maite egizuez zuen arerioak. On egizuez gorrotoa dautsuenai, otoitz egizue



aurrean zarabillezen alde, eta zeruko zuen Aitaren seme izango zaree.»

23. Samaritar zintzoa (Lk 10, 29-37)

Beste bein, idazlari batek Jesus'i itaun au egin eutsan: «Nor da nire lagun-urkoa?» Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Gizon bat Jerusalem'dik Jeriko'ra yoian. Bidean lapur batzuek urten eta eroian guztia kendu eutsoen, bidean erdi-illik itxirik. Orduan, abade bat etorri zan, gizona ikusi ta aurrera jo eban. Beste arenbeste egin eban lebitar batek be. Gero, samaritar bat etorri zan; eta gizona ikustean,

erruki izan yakon: zaurituagana urreratu, aren zauriak ardao ta orioaz garbitu ta lotu, ostatura eroan eta bere ardurapean artu eban.»

Orduan, Jesus'ek idazlariari itaun au egin eutsan: «Tru-rotariko nor uste dozu zuk, gizagaiso aren lagun-urkoa izan zala?» «Erruki izan yakona», erantzun eutsan idazlariak. Eta Jesus'ek: «Zoaz eta egizu zeuk be bardin.»

24. Jesus'ek ikasleai otoitz egiten irakatsi (Lk 11, 1-10)

Bein, ikasleak Jesus otoitz egiten ikusirik, auxe esan eutsoen: «Jauna, irakatsi egiguzu otoitz egiten.» Orduan, Jesus'ek: «Olantxe egin bear dozue otoitz: *Aita gurea, zeruetan zagozana, santifikatu bedi zure Izena, betorkigu zure erreñua, egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be; emon eiguzu gaur gure egunoroko ogia, parkatu eiguzuz gure zorrak, geuk gure zordunai parkatzen dautseguzanez, eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten, baiña gatxetik jagon gaizuz.*»

Jesus'ek beste au be esan eban: «Eskatu egizue, eta emon egingo yatzue; ibilli billa, eta aurkitu egingo dozue; atea jo, eta zabaldu egingo yatzue.»

25. Seme ondatzaillea (Lk 15, 11-32)

Gizon batek seme bi ebazan. Gazteenak aitari auxe esan eutsan: «Emon egidazu ondasunetatik neuri dagokidan zatia.» Aitak banandu egin ebazan ondasunak bere semeen artean. Gazteena, berea arturik, urrungo lurralde batera joan zan. An nasaikeritan bizi ta diru guztia eralgi eban. Ain zuzen be, lurralde aretan gosete gorria sortu zan, eta bear izaten asi zan. Orduan, gizon aberats baten morroi jarri ta txarrizain egin bear izan eban.

Baiña, bere senera biurturik, damutu ta auxe esan eban berekautan: «Emendik alde egin, neure aitagana biurtu ta auxe esango dautsat: Aita, pekatu egin dot zeruaren eta zeure aurka; zure seme-izenik ez dot merezi.» Eta jagi ta bere aitagana joan zan.

Aitak urrun etorten ikusi eban; eta, errukiz beterik,



semeagana ariñeketan joan, ari samatik oratu ta laztandu egin eban. «Aita —esan eban semeak—, pekatu egin dot zeruaren eta zeure aurka; ez dot zure seme izaterik merezi.» Baiña, aitak morroiai auxe esan eutsen: «Ekarri egizue bizkor soiñekorik onena ta jantzi egiozue; eratzuna eskuan eta oiñetakoak oiñetan ipiñi egiozue; zekor gizena il egizue, eta jan eta poztu gaitezcan: nire seme au ilda egoan eta biztu egin da-ta; galduta egoan eta aurkitua izan da-ta.» Eta jaiá ospatzen asi ziran.

26. Aberats gaiztoa ta Lazaro eskekoa (Lk 17, 19-31)

Gizon aberats bat bizi zan, purpura ta liñuz jantzi ta egun oro jai ederrak egiten ebazana. Baita Lazaro izeneko eskeko bat be ba-zan. Zauriz beterik, aberatsaren aturrean etzunda egoten zan. Aberatsaren maitik jausten ziran on/larrakaz kendu al izango eban bere gosea, baiña ez eutsazan iñok emoten. Txakurrak be etorri ta zauriak miazkatzen eutsoezan.

Egun baten, eskekoa il eta aingeruak Abraan'en al-tzora eroan eben. Aberatsa be il egin zan, eta inpernura joan zan. Oiñazetan egoala, an urrun Abraan ikusi eban,

baita onen altzoan Lazaro be. Orduan, deadarka esan eban: «Aita Abraan, erruki zakidaz! Bialdu egizu Lazaro, bere atzamar-ertza uretan busti ta nire miiña oztu dagian, sugar onetan oiñazetan nago-ta.» Baiña, Abraan'ek auxe erantzun eutsan: «Seme, zuk zure bizitzan ondasunak artu zenduzan; Lazaro'k, barriz, atsekabeak; orain, ba, au pozik dago, eta zu oiñazetan. Gaiñera, gure ta zuen artean leza andi bat dago; ezin igaro daiteke iñor emendik zuekana, ezta ortik gugana be.»

27. Pariseua ta zerga-batzaillea (Lk 18, 9-14)

Ba-ziran judar batzuk, euren buruak zintzotzat eta besteak gutxitzat artzen ebezanak. Alakoai, Jesus'ek urrengo ipuin au esan eutsen: «Gizon bi elizara otoitz egitera joan ziran. Bata, pariseua zan; bestea, zerga-batzaillea. Pariseuak, zutik, otoitz au egiten eban: Eskerrak emoten dautsudaz, ene Jaunkoiko orri, beste gizonen antzera lapur, zuzenbage ta zantarra ez nazalako, ezta zerga-batzaille ori lakoa be. Aste oro birritan egiten dot barau, eta nire irabazi guztien amarrenak emoten dodaz.

Zerga-batzaillea, ostera, baztar baten egoan, begiak zerura jasoteko be arpegirik ez ebala; eta bular-joka, auxe



iñoan: Erruki zakidaz, Jaungoiko ori, pekataria naz-ta! Benetan dirautsuet: azkenengo au zintzotuta biurtu zan etxera; ez, ostera, bestea: goratzen dana, beeratua izango da-ta; beeratzen dana, barriz, goratua.»

28. Jesus eta umeak (Mk 10, 13-16)

Egun baten, ama batzuk euren umeakaz Jesus'egana etorri ziran, arein gaiñean eskuak ezarri ta bedeinkatu egizan. Ikasleak asarre egiten eutseen; baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Itxi umetxoai neugana etorten eta ez gale-razo, zeruko erreiñua orrelakoena da-ta.»

Gero, umeak besoetan artu, arein gaiñean eskuak ezarri ta bedeinkatu egiten ebazan.

29. Azken-auzia (Mt 25, 31-46)

Beste bein, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: «Munduaren azken-aldian, Jesukristo bere aingeruakaz barriro etorriko da. Orduan, bere aintzazko aulkian jesarriko da, eta lurreko erri guztiak batuko dira Aren aurrean. Zintzoak bere eskumaldean ipiñiko dauz, eta gaiztoak bere ezkerrekaldean. Gero, eskumaldekoai auxe esango dautse: *“Etorri zaiteze, nire Aitaren bedeinkatuok!: artu egizue munduaren asierarik zeuontzat atondutako erreiñua.”*


Eta gero, ezkerrekaldekoai auxe esango dautse: *“Alde nigandik, madarikatuok, betiko sutara, deabruarentzat eta aren aingeruentzat gertuta dagoan sutara!”*

Azken oneik betiko oiñazetara joango dira; zintzoak, barriz, betiko bizitzara.»


30. Jesus Jerusalem'en ospez beterik sartzen da (Mk 11, 1-11)

Gaiñean zan judarren Pazko-eguna; eta Jesus'ek ama-bi apostoluai auxe esan eutsen: «Begira: orain Jerusalem'era goaz; an, il egingo nabe; baiña, irugarren egunean biztu egingo naz.»

Jerusalem-ondoan, ikasle bik astoama bat astakumeagaz ekarri eutsoen, eta Jesus gaiñean jesarri zan. Pazko-eguna zala-ta, urian laguntalde andia zan. Laguntalde au, abarrak arturik, Jesus'i bidera urten yakon. Batzuek euren



soingaiñekoak erantzi ta bidean zabaltzen ebezan; beste batzuek arboletako adarrak ebagi ta Jesus'en aurrean zabaltzen ebezan; eta laguntaldeak, aurretik eta atzetik, deardarka iñoen: *"Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!"* Pazko-eguna baiño lentxoago, abadeburuak eta erriko



zaarrak batzarra egin eben, Jesus'i eriotza zelan emon zeitekion asmatzeko. Une aretan, abadeburuakana Judas etorri ta auxe itandu eutsen: «Zer emongo daustazue, zeuon eskuetan izten ba'dot?» Areik poz-pezik jarri ta zidarrezko ogetamar diru eskiñi eutsoezan. Judas'ek ontzat artu eban, eta arrezkero, Jesus arei emoteko aukera-billa ebillen.

31. Eukaristia (Mk 14, 22-25)

Jesus'ek, bera il-aurreko gabean, ikasleakaz maian Pazko-bildotsa jaten ziarduala, ogia artu, bedeinkatu, zaitu ta bere ikasleai emon eutsen, esanez: *"Artu ta jan egizue; au neure gorputza da, zeuon alde emongo dana."* Gero, edontzia artu, eskerrak emon eta bere ikasleai emon eutsen, esanez: *"Edan egizue guztiok onetatik; au neure odola da, Alkartasun Barriko odola, zuen eta guztien alde pekatuak parkatzeko isuriko dana. Au, neure gogutaz egizue."*

Eta guztiak edan eben.

32. Jesus'en larrialdia Oriomendi'n (Lk 22, 39-46)

Aparia amaituta, Jesus bere ikasleakaz Oriomendi'ra



joan zan; eta ango ortuan sartuta, sarreran auxe esan eutsen: «Jesarri zuek emen, ni otoitz egitera noan artean.» Gero, Pedro, Santiago ta Yon beragaz artu ta aurreratoxoago joan zan. Bereala, bildur-ikaraz larritzen asi ta auxe esan eutsen: «Larri dot biotza ilteko zorian. Gelditu emen, eta iratzarrik egon.» Eta zerbait aurreraturik, belaunikotu ta otoitz au egin eban: “*Aita, al ba’da, urrundu dakidala larrialdi au; baiña ez bedi neure naia egin, zeurea baiño.*” Otoitz ori Jesus’ek iru aldiz egin eban. Orduan, zerutik aingeru bat agertu yakon, adorea emotera. Izerdia odol-tantak lez egin yakon, lurrera jausten zirala.

Jesus ikasleakana biurtu zan, eta lotan aurkitu eban. Orduan, «Jagi ta goazan —esan eutsen—, saldu bear nauana emen dago-ta.»

33. Jesus, lotuta daroe (Mk 14, 43-52)

Jesus’ek berbetan ziarduala, gudari ta morroi-talde andia etorri zan, kruselu ta argizuziakaz, ezpata ta makillakaz, abadeburuak eta erriko zaarrak bialduta. Guztion aurrean, Judas etorren. Onek ezaugarri au emon eutsen: «Nik laztandu dagidana, axe da; lotu egizue.» Judas’ek,



Jesus’egana urreratu ta auxe esan eutsan: «Agur, Irakasle!»; eta laztan bat emon eutsan. Eta Jesus’ek: «Adiskide, zetara etorri zara? Judas, laztan batatz saltzen nozu?» Eta ara etozanai begiraturik, «Noren billa zatoze?», esan eutsen. «Jesus Nazaretarraren billa», erantzun eben areik. «Neu naz», esan eutsen Jesus’ek. Orduan, bat-batean atzeraka egin eta lurrera jausi ziran. Jesus’ek barrero itandu eutsen: «Noren billa zatoze?» Eta areik: «Jesus Nazaretarraren billa.» Eta Jesus’ek: «Esan dautsuet neu nazana. Beraz, neure billa ba’zatoze, itxi onei joaten.» Gero, Jesus’i eldu ta lotu egin eben. Orduan, ikasleak Jesus bertan-beera itxi ta iges egin eben; Pedro’k eta Yon’ek jarraitzen eutsen soillik, urrundik.

34. Jesus, eriotzara galdua (Mt 26, 57-68)

Gudariak Jesus lotu ta Kaifas abade nagusiaren aurrera eroan eben, erriko zaarrak batuta egozan etxera. Guzurrezko testigu asko etorri ziran Jesus’en aurka, baiña autorpenak ez etozan batera. Orduan, abade nagusiak, zutundurik, Jesus’i itaun au egin eutsan: «Jaungoikoaren Semea zara zu?» «Bai, ba-naz», erantzun eutsan Jesus’ek. Eta abade nagusiak: «Biraio egin dau!» Orduan, «Eriotzarako errudun da!», esan eben deadarka ango guztiak.

Gau aretan Jesus lotuta euken morroiak, Ari irri ta barre egiten eutsen; batzuek arpegira txistua bota ta matraillakoak emoten eutsoezan; beste batzuek Jesus’i arpegia estaldu ta jo egiten eben, esanez: «Igarri, Kristo: nok jo zaitu?»

35. Pedro’ren ukatzeak eta Judas’en eriotza (Mt 26-27)

Pedro, Jesus eroan eben etxeko atartean sartu zan, sutondoan berotzera. Neskame batek, aregana urreraturik, auxe esan eutsan: «Zu be Jesus’egaz zengozan.» Eta Pedro’k: «Emakume, ez dot ezagutzen.» Gerotxoago, beste neskame batek ba-dirautso: «Zu be Jesus Nazaretarragaz zengozan.» Pedro’k barrero be ukatu: «Nik ez dot gizon ori ezagutzen.» Ordubete gerogago, beste norbaitek: «Au be Jesus’egaz ebillen, berau be Galilearra da-ta.» Pedro’k




irugarrenez be ukatu, zin egiñik: «Ezagutu be ez dodala egiten, ba, zuek diñozuen gizon ori!» Une aretan bertan Jesus eroien; eta, Pedro'ren aurretik yoiala, Pedro'gana biurtu ta begirakune bat egin eutsan. Orduan, Pedro damutu egin zan zearo Jesus ukatu ebalako; eta, kanpora urtenda, negar baten asi zan.

Judas'ek, Jesus eriotzara galdu ebela jakin ebanean, damututa, zidarrezko ogetamar diruak batzar nagusikoai biurtu egin eutsezan, esanez: «Pekatu egin dot, zintzo baten odola salduaz.» Baiña, areik: «Eta guri zer?» Orduan, zidarrezko diruak elizan jaurti, alde egin eta urkatu egin eban bere burua.

36. Jesus, zigorkadaz astindua (Jn 18-19)

Egusentian, judarrak Jesus lotuta Pilato'gana eroan eban; Pilato au, Judea'n agintari erromarra zan. Onek gurutzera galdu egiala nai eban. «Ze gaiztakeri egin dau, ba? —esan eutsen Pilato'k—. Nik ez dot onegan errurik aurkitzen. Zigortu ondoren, askatu egingo dot.» Judarrak geroago ta gogorrago asi ziran deadarka: «Gurutzera ori,




gurutzera!» Orduan, Pilato'k zigorkadaz astintzeko agindu eban.

Gero, gudariak soñeko gorri bat jantzi eutsoen; eta arantzazko koro bat eginda, buruan ipiñi eutsoen, eta kaiñabera bat eskuman. Gero, Aren aurrean belaunikoturik, iraindu egiten eban, «Agur, judarren errege ori!», esanez. Txistua jaurti ta matraillokoak emoten eutsoezan, eta kaiñabereaz buruan jotzen eban.

Pilato'k Jesus barrero kanpora atara ta erriari erakutsirik, «Emen dozue gizona!», esan eutsen. Judarrak, barriz, deadarka: «Gurutzera ori, gurutzera!» Eta Pilato'k: «Nik ez dot onegan errurik aurkitzen.» Judarrak barrero be deadarka: «Ori askatzen ba'dozu, ez zara Zesar'en adiskide!» Orduan, Pilato'k, bildurrez beterik, Jesus eriotzara galdu ta gurutzerako emon eutsen.

37. Jesus'ek gurutzera daroa (Mt 27, 45-54)

Gudariak Jesus gurutzera josteko eroan eban. Gurutzera Berak artu ta Golgota edo Buru-azurtegi izeneko mendiragiño joan zan. Beste lapur bi be ba-eroiezan Jesus'egaz batera. Bidean, gudariak solotik etorren Simon izeneko



gizon bati eldu ta gurutzea leporatu eutsoen, Jesus'en atzetik eroan egian.

Laguntalde andiak jarraitzen eutsen, baita emakume batzuek be negar-zotinka. Jesus'ek, arekana biurtu ta auxe esan eutsen: «Ez egin negarrik nigaitik, zeuokaitik eta zeuon seme-alabakaitik baiño.»


38. Jesus, gurutzean (Lk 23, 33-43)

Eguerdian, Jesus Golgota mendira eldu zan. An, gudariak gurutzean josi eben, baita lapur bi be: bata esku-maldean, eta bestea ezkerrekaldean. Pilato'k gurutze-buruan eriotz-agiri au ipinteko agindu eban: «Jesus Nazaretarra, judarren errege.»

Gudariak Jesus'i jantziak erantzi ta euren artean banatu ebezan. Soingaiñekoa josturabagea zan ezkerre, ez eben zatitu nai izan, eta zotz egin eben.

Gurutze-ondoan egozan judarrak eta gudariak Jesus iraindu egiten eben. Jesus'ek, barriz, otoitz egin: «Aita, parkatu egiezu, ez dakie egiten diarduena-ta.»

Lapurretariko batek be biraoka ziarduan; baiña, besteak Jesus'i auxe esan eutsan: «Jauna, gomuta zaitez nitzez zeure erreñura eldu zaitezanean.» Eta Jesus'ek erantzun:



«Benetan dirautsut: gaur nigaz batera zeruan izango zara.»

Gurutze-ondoan Jesus'en ama ta Yon apostolua egozan; eta Jesus'ek bere amari auxe esan eutsan: «Andra, or dozu zure semea.» Gero, ikasleari: «Or dozu zure ama.» Eta arrezkero, ikasleak Jesus'en ama bere etxean artu eban.

39. Jesus gurutzean ilten da (Mt 27, 45-54)

Eguerdian, eguzkia illundu ta lurralde guztia iru orduan illunetan gelditu zan. Gero, Jesus'ek, «Egarri naz», esan eban. Gudarietariko batek belaki bat ozpiñetan busti, kaiñabera-erpiñean ezarri ta Jesus'en agora eroan eban. Jesus'ek ozpiña artu ebanean, «Guztia bete da», esan eban. Gero, deadar andi bat egifiik, beste au: «Aita, zeure eskue-tan izten dot nire gogoa.» Eta burua makurtu ta azken-arnasa emon eban.

Orduan, lurra ikaraka asi zan, atxak brintzatu, illobiak edegi ta ildako asko biztu egin ziran.

Jesus zaintzen ziarduen gudariak eta euntaria bildurrez beterik gelditu ziran, eta auxe iñoen: «Benetan, gizon au Jaungoikoaren Semea zan.»

40. Jesus'en illobiratzea (Jn 19, 31-42))


Illuntzeruntz, gudari batek lantza bat artu ta Jesus'en saiets-alboa zulatu egin eban, eta bat-batean odola ta ura urten ziran. Gerotxoago, gizon zintzo bik, Arimatea'ko Jose'k eta Nikodemo'k, Jesus'en gorpua gurutzetik eratsi, izareaz batu ta arri bizian zulaturiko illobi barri baten ipiñi eben. Illobi-agoan arritzar astun bat ipiñi eben. Judarrak arriari ezaugarriak ezarri ta illobia zaintzailleen ardurapean itxi eben.

41. Jesusen biztuera (Mt 28, 1-8)

Irugarren eguna argitzean, *Jesus illen artetik biztu egin zan*; ospez beterik urten zan illobitik.

Lurrikara andi bat egin zan, eta Jaunaren aingeru bat zerutik jatsirik, Jesus'en illobiko arri andia kendu ta bertan jesarri zan. Aingeruak oiñaztua zirudian, aren soiñekoa edurra baizen zuria zan; eta zaintzailleak, bildurrez beterik, ilda lez gelditu ziran.

Goizean-goiz, emakume zintzo batzuk Jesus'en illobira yoiazan, Aren gorpua usaingarriz igurtzitera. Ara eltzean, arria andik kenduta egoala ikusi eben; eta illobi-barruan sarturik, aingerua jesarrita ikusi ta ikaratu egin



ziran. Aingeruak, oster, «Ez bildurtu! —esan eutsen—: Jesus Nazaretarraren billa zatoze. *Biztu egin da*. Ez dago emen. Zoaze ta esan egiezue barri au ikasleai.»


42. Jesus ikasleai agertzen yake (Jn 20, 19-23)

Jesus biztu zan egun berean, ikasleak Jerusalem'go gela andi baten batu ziran. Judarrakanako bildurrez, atek itxi egin ebezan. Bat-batean, Jesus agertu ta erdian jarri yaken, esanez: «*Bakea zuekaz! Ez bildurtu; neu naz.*» Ori esanda, eskuak, oiñak eta saietsa erakutsi eutsezan. Orduan, Jauna ikusi eben ikasleak pozez beterik gelditu ziran.

Gero, Jesus'ek barrero: «Bakea zuekaz. Aitak bialdu nenduan ez bialtzen zaituet neuk be.» Ori esanda, arein gaiñera arnasa egin eta auxe esan eutsen: «Artu egizue Espiritu Santua. Zuek pekatuak parkatu dagiezuezanai, parkatuak geldituko yakez; eta zuek pekatuak lotu dagiezuezanai, lotuta geldituko yakez.»

43. Pedro, Elizaren buru (Jn 21, 15-18)

Egun baten, Tiberiades'ko itxas-ertzean, Jesus zazpi



ikasleri agertu yaken; eta Pedro'ri itaun au egin eutsan: «Simon, Yon'en seme, oneik baiño geiago maite nozu?» Eta Pedro'k: «Jauna, zuk ba-dakizu maite zaitudana.» «Zaindu egizuz nire ardiak», esan eutsan Jesus'ek. Bigarrenez be Jesus'ek ba-dirautso: «Simon, Yon'en seme, maite nozu?» Eta Pedro'k: «Bai, Jauna; zuk ba-dakizu maite zaitudana.» «Zaindu egizuz nire ardiak», esan eutsan Jesus'ek. Irugarrenez be Jesus'ek: «Simon, Yon'en seme, maite nozu?» Jesus'ek iru aldiz itandu eutsan ezkerro, Pedro arpegi-illun jarri ta auxe esan eutsan: «Jauna, zuk dana dakizu; zuk ba-dakizu maite zaitudana.» Eta Jesus'ek: «Zaindu egizuz nire bildotsak.»

44. Jesus, zerura (Mt 28, 16-20; Act. 1)

Biztuta gero, Jesus apostoluai agertu yaken, eta auxe



esan eutsen: «Zoaze ta irakatsi egiezue erri guztiai; bateatu egizuez Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, eta agindu dautsuedan guztia beteten irakatsi egiezue. Eta begira: neu egongo naz zuekaz egun oro munduaren azken-aldirarte.»

Berrogei egun geroago, Jerusalem'go gela andian, Jesus ikasleai agertu yaken, eta auxe esan eutsen: «Zoaze mundu zabalean zear, eta gizaki guztiai Barri Ona iragarri egiezue. Sinistu dagiana ta bateatua izan daitena, zeruratu egingo da; sinistu ez dagiana, barriz, galdu egingo da.» Gero, Oriomendi'ra eroan ebazan; eta bere eskuak jasorik, bedeinkatu egin ebazan. Bedeinkatzen ebazan artean, arein begien aurrean gorantz igoten asi ta *zerura igo zan*.

Apostoluak Jesus'i begira-begira egozala, odei batek arein begietatik ostendu egin eban. Bat-batean, soñeko zuriz jantzitako gizon bi agertu yakezan, eta auxe esan eutseen: «Zetan diarduzue zerura begira? Jesus zeruan sartu da. Zerura joaten ikusi dozuenez etorriko da.» Orduan, apostoluak Jerusalem'era biurtu ziran pozez beterik.



45. Espiritu Santua ikasleakana (Act. 2)

Jesus'en zerura igokunde-ostean, apostoluak Jerusalem'go gela andi baten batuta egozan, eta arekaz batera Maria, Jesus'en ama, baita beste ikasle batzuk be. Bede-ratzi egunean otoitzean ziarduen.

Amargarren egunean, judarren Pentekoste zan. Eta bat-batean, zerutik aize-boladarena jako burrundarea sortu zan, eta areik egozan etxe guztia bete eban. Su-antzeko miiñak ikusi ebezan, bakotxaren gaiñean gelditzen zirala. Guztiak Espiritu Santuz bete ta izkuntza arrotzetan berba egiten asi ziran.

Burrundarea entzun zanean, apostoluak egozan etxe-aurrean lagun asko batu ziran. Orduan, Pedro zutundu ta olantxe asi yaken berba egiten: «Israelgo gizonok! Jesus Nazaretarra zuek gurutzean il dozue; baiña, A illen artetik bizitu ta zerura igo da. Orain, barriz, Espiritu Santua bialdu dausku.»

Pedro'ren eta beste apostoluen berbak entzun ebezeanean, «Anaiok, zer egin bear dogu, ba?», itandu eben areik. Eta Pedro'k: «Damutu zaiteze ta bateoa artu egizue, pekatuak parkatu dakizuezan. Gero, zuek be Espiritu Santua artuko dozue.»

Orduan, judar askok bateoa artu eben; iru millaren bat ziran.

Eliza munduan zear

Gero, Apostoluak Jerusalem'dik beste errialde batzue-tara zabaldu ziran. Judarrai ta jentillai Jesus'en Barri Ona irakatsi ta Jesukristo'k egindako Sakramentuak emon eutseezan. Jesukristo'ren irakaspene ontzat artu eben guztiak, bateatuak izan ziran: arrezkero, *kristau* izenaz ezagutzen ziran. Egun oro ugaritzen yoiazan. Orretara, toki askotan kristau-taldeak egin ziran. Onein buru, Apostoluak ziran. Kristau-talde osoari, barriz, *Eliza Katolikua* eritxon, Pedro agiriko buru zala.

Pedro'ren ondorengo Erroma'ko gotzaiña da; oni, *Aita Santua* deritxo. Apostoluen ondorengoak *gotzaiñak* dira; eta gotzaiñen laguntzailleak, *abadeak*.

Eliza Katolikua munduan geroago ta geiago zabaltzen doa. Mundua mundu dan artean, ez da jausiko, Jesukristo'k apostoluai agindu eutsenez: "*Begira: neu egongo naz zuekaz egon oro munduaren azken-aldidarte.*"

AURKIBIDEA

ALKARTASUN ZAARRA

1. Jaungoikoak mundua ezerezetik egin eban.	3	18. Jose'ren anaiak Ejipto'ra doaz	16
2. Aingeruak	4	19. Jose'ren anaiak bigarrenez Ejipto'ra	17
3. Jaungoikoak lenengo gizona egiten dau...	4	20. Jose'k bere burua agertzen dautse	17
4. Lenengo andra-gizonak p e k a t u egiten dabe	5	21. Jakob Ejipto'ra doa.	18
5. Adan eta Eba, zigortuak	5	22. Moises, eriotzatik askatua	18
6. Kain'ek bere anai il	6	23. Jaungoikoak Moises aukeratzan dau...	20
7. Jaungoikoak lurgaiñera uriola bialtzen dau	8	24. Moises'ek israeldarrak Ejipto'tik atara.	21
8. Gizonak guzurrezko jaungoikoak gurtzen.	9	25. Israeldarrak Itxaso Gorria oiñez igaroten... ..	22
9. Jaungoikoak Abraan'i egindako deia...	10	26. Jaungoikoak israeldarrai basamortuan janaria ta edaria emoten dautse	23
10. Melkisedek'ek ogia ta ardaoa eskintzen ...	10	27. Jaungoikoaren amar aginduak... ..	24
11. Abraan'ek bere semea eskintzen dau...	10	28. Moises'ek txabola santua egiten dau...	25
12. Isaak onik urteten da	11	29. Jaungoikoak abadeak eratzen dauz... ..	25
13. Jose'ri bere anaiak dautsoen gorrotoa ...	12	30. Dabid, Goliat gizonzarraren aurka... ..	25
14. Anaiak Jose saldu egiten dabe... ..	13	31. Jaungoikoaganako gurtza... ..	27
15. Jose. espetxera	14	32. Salomon'ek eliza bat egiteko agintzen dau	27
16. Jose'k amesetak azaltzen dauz... ..	14		
17. Jose, goratua	15		

ALKARTASUN BARRIA

1. Aingeruak Maria'ri barri ona iragarten dautso 29	21. Jesus'en irudi-aldatzea 44	
2. Maria, Elizabet bere senidea ikustera ... 30	22. Jesus'ek maitasun-agindua emoten dau. 44	
3. Jesus'en jaiotza Be-len'en... .. 30	23. Samaritar zintzoa ... 45	
4. Artzainak Jesus gurtzen 31	24. Jesus'ek ikasleai otoitz egiten irakatsi 46	
5. Jesus'en elizan-sartzea 32	25. Seme ondatzaillea ... 46	
6. Sortzaldeko jakitunak Jesus gurtzen ... 32	26. Aberats gaiztoa ta Lazaro eskekoa... .. 47	
7. Ejipto'ra igesi ... 33	27. Pariseua ta zergabatzailea 48	
8. Jesus, mutikotan, elizan gelditzen da . 34	28. Jesus eta umeak ... 49	
9. Jesus'en bateoa... .. 35	29. Azken-auzia... .. 49	
10. Jesus'ek ura ardao biurtzen dau... .. 36	30. Jesus Jerusalem'en ospez beterik sartzen da... .. 49	
11. Jesus'ek eliza garbitzen dau... .. 37	31. Eukaristia 51	
12. Jesus'ek ikasle en arrantza bedeinkatu. 37	32. Jesus'en larrialdia Oriomendi'n... .. 51	
13. Jesus'ek elbarridun bat osatu... .. 38	33. Jesus, lotuta daroe... 52	
14. Jesus'ek euntariaren morroia osatu 38	34. Jesus, eriotzara galdua 53	
15. Jesus'ek Nain'go gazte bat biztu 39	35. Pedro'ren ukatzeak eta Judas'en eriotza. 53	
16. Jesus'ek itxasoan eka-txa baretu 39	36. Jesus, zigorkadaz astindua... .. 54	
17. Jesus'ek Jairo'ren alabea biztu... .. 40	37. Jesus'ek gurutzea daroa 55	
18. Jesus'ek ogiak ugaritzen dauz... .. 41	38. Jesus, gurutzean ... 56	
19. Jesus itxasoko olatu-gaiñean oiñez 42	39. Jesus gurutzean ilten da... .. 57	
20. Jesus'ek zeruko ogia agintzen dau... .. 43	40. Jesus'en illobiratzea 58	
	41. Jesus'en biztuera ... 58	
	42. Jesus ikasleai agertzen yake 59	
	43. Pedro, Elizaren buru 59	
	44. Jesus. zerura 60	
	45. Espiritu Santua ikasleakana 61	

LABAYRU-IKASTEGIA
BIBLIOTEKA - DERIO
Sarr 9985/86
Gaia.